Juan Aizpitarte

zeinuak zeinu gainean signos sobre signos

zeinuak zeinu gainean

signos sobre signos

juan aizpitarte

Signos sobre signos-Zeinuak zeinu gainean. Juan Alzpitarte

Bilduma - Colección: Esci Projects 4

Argitaratzaileak-Edita:
Vitoria-Gasteizko Udala - Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz

Kultura Saila - Departamento de Cultura

Espacio Ciudad Hiria Gunea (Egungo Hirirako Arkitektura eta Hirigintzaren Zentroa - Centro de Arquitectura y Urbanismo para la Ciudad Contemporánea)

Zuzendaritza eta koordinazioa-Dirección y coordinación: Nekane Aramburu

Argazkiak-Fotografías: Juan Alzpitarte, FOC, Florent Mazzonelli, Jon Urdangarin Meabe, Tofio Antón, participantes en el taller, etc

Testuak-Textos: Javier Abarca, Juan Alzpitarte, Florent Mazzonelli

Itzulpenak-Traducciones: Euskara Zerbitzua. Vitoria-Gasteizko Udala - Servicio de Euskera. Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz
Ingelesezko itzulpena-Traducción inglés: Udalaren Itzulpen Zerbitzua. Gizarteratze Zerbitzua. Gizartegintza Saila. Vitoria-Gasteizko Udala - Nekane Ramírez de la Piscina. Servicio Municipal de Traducción e Interpretación. Servicio de Inserción Social. Departamento de Intervención Social. Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz

Maketazioa - Maquetación:
Txomin Imaz

Inprimatzea - Imprenta: Gráficas Dosbi S.L.

ISBN: 978-84-959-45-28-2
L.G. - D.L.: VI-

Banatzailea - Distribuye: Elkar

Testu eta argazkien ©, egilearena - © de los textos y fotografías, los autores

www.vitoria-gasteiz.org/espaciociudad

1

Los adhesivos en el arte público autónomo
Javier Abarca

Frágil
Florent Mazzoleni

Aluminio y cristal
Juan Aizpitarte

Los adhesivos en el arte público autónomo
Javier Abarca

Frágil
Florent Mazzoleni

Aluminio y cristal
Juan Aizpitarte

2

El taller Signos sobre signos, noviembre 2008

Trabajos de los alumnos

Intervenciones de Juan Aizpitarte

Biografías

Glosario

El taller Signos sobre signos, noviembre 2008

Trabajos de los alumnos

Intervenciones de Juan Aizpitarte

Biografías

Glosario

ERANSKAILUAK ARTE PUBLIKO AUTONOMOAN

JAVIER ABARCA

Azken berrogei urteetan zenbait joera artistiko independente sortu dira kalean (arte publiko autonomoa). Paisaia fisiko eta artistikoan lekua irabazten joan diren neurrian, gero eta zailagoa da beren presentzia saihestea. Joera horien artean lehena eta agerikoena graffitia da; laurogeiko hamarkadatik aurrera mendebaldeko hiri gehienetako aurpegiaren zantzuetan dago. Bigarrena postgraffitia da. Indarra hartu izan du, batez ere hamarkada honetan bertan; azken bi urte inguru honetan arte-sistemaren gorenera iritsi izan da bat-batean. Joera biak muga lausoko multzo bereko osagarri gisa antzematen ohi badira ere, mami eta muin desberdineko jarduerak dira funtsean.

Graffitia eta postgraffitia

Graffiti deritzo hirietako zenbait gazte taldek beren ezizenak eskura dituzten hiriko horma eta bestelako espazio margogarri guztietan sistematikoki idaztean datzan tradizioari. Graffitia haur eta nerabeek beren gurasoen kontrolpetik aske dauden kalexka eta beste leku batzuetako hormetan beren izenak, filiak eta fobiak idazteko betidanik izan duten ohituraren sistematizazioa da. Hirurogeiko hamarkadaren bigarren erdian, tradizio horrek berebiziko indarra hartu zuen Filadelfian eta New Yorken; aerosol-margoen eta errotulagailu iraunkorren ez askoz lehenagoko asmakizunak bultzatuta garatu zen gertuko baina desberdina zen beste fenomeno batekin batera, kaleko gazte taldeen lurralde-graffitiarekin batera alegia. Graffitiak gaur egun ezagutzen diogun itxura hartzen hasi zen graffiti idazleak beren izena bakoitzaren auzotik kanpo idazten hastearekin batera.

Hor ageri da hiri guztira iristeko gogoa, "all city" kontzeptua, New Yorkeko paisaia izenez goitik behera beteko zuena. Handik gutxira, metroa euskarri kuttunen bihurtu zen: bagoien kanpoaldean itsatsita, izenok hirian zehar ibiliko ziren, gaineko pasabideen artean eta mutur batetik bestera, milaka begien aurretik. 1971an fenomenoak eztanda egin zuen. Ordutik aurrera, milaka lagun sartu ziren besteak baino ikusgaiago izatearen, gehiago agertzearen, "ikusgai egotearen" lehian. Lepo betetako lekuetan norberaren izena ikusgai bihurtu beharrak bi fenomeno eragin zituen: batetik, sinaduren estilizazio gero eta handiagorako joera, laster batean ezjakinentzako irakurtezin bihurtuko zituen artekoa; bestetik, kolore anitzeko eta bagoien tamainako errotulu handi bihurtuko zituen bilakaera.

Urte gutxitan kultura konplexu bat sortu zen; 1973rako ezarriak zeuden graffitia gaur ezagutzen dugun bezala definitzen duten kanon estilistiko eta metodologiko ia guztiak, nola New Yorken, hala laurogeiko hamarkadako lehen urteetan hitzez hitzeko moldeetan esportatu zen mundu osoan ere. Graffitia jolas funtsean konpetitiboa da, arau oso ondo definituduna, eta bilakaera mantsokoa. Auzia besteen errespetua eskuratzean datza, agertokiari itxura ematen dion ospe-hierarkian gora egin ahal izateko. Horretarako, besteak baino gehiagotan agertu behar da, leku arriskutsuago eta agerikoagoetan, eta estilo hobea erakutsiz.

Kontzeptu garrantzitsuena, gakoa, estiloarena da. Trebetasun kaligrafiko eta piktorikoetatik haratago (berez oso garrantzitsuak badira ere), estilo kontzeptuak graffitiaren hiztegi grafiko murritza erabiltzeko freskotasuna eta orijinaltasuna

LOS ADHESIVOS EN EL ARTE PÚBLICO AUTÓNOMO

JAVIER ABARCA

En los ltimos cuarenta a–os han surgido ciertas corrientes de actuaci n art'stica independiente en la calle arte p blico aut nomo cuya presencia en el paisaje f'sico y art'stico ha sido cada vez m s dif'cil de ignorar. La primera y m s visible de ellas, el graffiti, forma parte desde los ochenta del rostro de la mayor'a de ciudades occidentales. La segunda, el postgraffiti, ha adquirido prominencia sobretodo durante la presente d cada y en el ltimo par de a–os ha invadido s bitamente las esferas m s altas del sistema del arte. Aunque ambas corrientes son percibidas en muchos casos como parte del mismo confuso conjunto se trata de actividades diferentes en esencia.

Graffiti y postgraffiti

Durante la segunda mitad de los sesenta esta tradici n se desarroll con especial fuerza en Philadelphia y Nueva York, ayudada por la reciente aparici n de la pintura en aerosol y los rotuladores permanentes y paralela al graffiti territorial de las bandas callejeras, cercano pero distinto. Cuando el nombre se empieza a escribir m s all de los confines del propio barrio es cuando aparece el graffiti como lo conocemos ahora.

Es el concepto all city , llegar a toda la ciudad, la idea central del fen meno que acabar'a cubriendo de nombres el paisaje de Nueva York. A partir de 1971 se produjo la explosi n del fen meno y enseguida fueron miles los que compet'an por la visibilidad, por aparecer m s veces que los dem s, por dejarse ver m s. La necesidad de hacer visible el nombre en un espacio saturado llev por un lado a una progresiva estilizaci n de las firmas, que pronto ser'an ilegibles para el lego, y por otro a la evoluci n que las llevar'a a transformarse en enormes r tulos multicolores del tama–o de un vag n.

En pocos a–os se gener una cultura compleja, y para 1973 ya estaban establecidos casi todos los c nones estil'sticos y metodol gicos que definen el graffiti tal como se sigue practicando hoy tanto en Nueva York como en el resto del mundo, a donde se export de forma literal a partir de los primeros ochenta. El graffiti es un juego esencialmente competitivo con unas reglas perfectamente definidas y de evoluci n muy lenta. Se trata de conseguir el respeto de los dem s practicantes, con el objetivo de subir escalafones en la econom'a de prestigio que da forma y jerarquiza la escena. Para ello hay que aparecer m s veces que los dem s, en lugares m s arriesgados y visibles, y demostrando mejor estilo.

El postgraffiti es un juego distinto, en el que viandante est invitado a participar. Los artistas del postgraffiti tambi n juegan a dejarse ver , pero de una forma que todos podemos entender. Lo que repiten no es un nombre ilegible sino un motivo o un estilo gr fico reconocible con el que cualquier ciudadano se puede identificar. El impulso de dejarse ver no responde en este caso a una competitividad interna entre los artistas. Forma parte en cambio del juego que se establece entre artista y espectador que constituye la experiencia est tica del postgraffiti: el artista reproduce sus im genes y el espectador se sorprende en cada encuentro, aprecia el modo en que el artista se hace con cada localizaci n y disfru-

adierazten ditu. Metodologia ere arau jakin batzuei lotzen zaie, dela material jakin batzuk lortzeko moduari, dela euskarriak hautatzearen ingurukoei. Kontrakoa irudi lezakeen arren, graffitia kultura kontserbatzailea da, tradizioak birsortzean zentratua, sormenik ez du onartzen, ez bada molde jakin baten mugen barruan. Kode itxia da; ondorioz, publiko espezializatuari zuzentzen zaio, ez ditu inolaz ere kontuan hartzen kaleko oinezkoak, jokoz kanpo uzten ditu. Soilik graffiti idazleek (horrela deitzen diote euren buruari) dira beste idazleen lanaren meritua eta ñabardurak antzemateko eta baloratzeko gauza: izena irakurtzeko gaitasunetik beretik hasita, estiloa eta metodologiaraino.

Postgraffitiaren jolasa beste era batekoa da, oinezkoak parte hartzera gonbidatzen baititu. Postgraffitiaren artistek ere "ageriko izatearen" jokoari lotzen zatzaizkie, baina edonork ulertzeko moduan. Ez dute errepikatzen izen ulertezin bat, baizik eta ezagutzeko moduko motibo edo estilo grafiko bat, kalean dabiltzanek euren buruak identifikatuta sentitzeko adinakoa. Ageriko izatearen grina, ikusgai izatearen gogoa, ez dira kasu honetan artisten arteko barne-lehiakortasunaren ondorio. Aldiz, artistaren eta ikusleen artean ezartzen den jokoaren osagarri dira, joko hori izanik postgraffitiaren esperientzia estetikoaren muina: artistak bere irudiak erreproduzituko ditu, eta ikuslea, aldiz, harritu egingo da topaketa bakoitzean, balioetsi egingo du artistaren kokapen jakin bat edo beste bereganatzeko modua, alez ale itxuratzen duen diskurtso narratiboa ehuntzeko modua. Joko horrek lotura bat sortzen du bi aldeen artean, espazio publikoan gertatzen den nolabaiteko harreman intimoa.

Postgraffitiaren lehen aleak hirurogeiko hamarkadan sortu ziren. Daniel Buren eta Gérard Zlotykamien frantsesak orduan hasi ziren hainbat urte iraungo zuten beren kale-kanpainekin, lehenarena abstraktua, bestearena figurazio lauso baten moldeetan. Beste frantses batek -Ernest Pignon Ernest-ek- bere lehen litografia errealistei ekin zien hirurogeita hamarreko hamarkadako lehen urteetan; hori izan zen aurrerantzean postgraffitiak ohiko izango zuen osagarri narratiboaren sorrera. Baina postgraffitiaren lehen aldra handia laurogeiko hamarkadako lehen urteetan gauzatu zen, aldi berean New Yorken, Parisen eta São Paulon (Keith Haring, Blek le Rat eta Alex Vallauri izan zituzten buru, hurrenez hurren), baita Europako beste hainbat hiritan ere, nahiz eta maila apalagoan.

Laurogeiko hamarkadako panorama atomizatua desagertu egin zen ia osorik, apenas ondoriorik utzi gabe. Laurogeita hamarreko hamarkadan hasi zen egosten Shepard Fairey estatubatuarra (Obey Giant kanpainaren sortzailea) eta Banksy britainiarra buru dituen oraingo aldra. Interneti esker, mundu zabalean hedatu eta elkarren arteko lotura oso estuduneko sare benetan zabala eratu da. Hamarkada horretan postgraffitia maila gorenera iritsi zen, arte-sistemak, azkenik, behin betiko bere egin duen arte.

Postgraffitian aritzen diren ia guztiak mendebaldeko tradizioan hezitako artistak dira, nahiz hori kultur erroetako bat baino ez den. Laurogeiko eta laurogeiko hamarreko hamarkadetako postgraffitia tradizio hori eta herri-kulturaren beste molde batzuk (esaterako, ala nola punk-a, skate-a eta kontrapublizitatea) uztartzearen ondorioz sortu da, baina guztien gainetik, nagusiena, graffitiia izan da. Postgraffitia graffitiaren kultur korronte itzelaren oinordetzat jo daiteke, edonorentzako egokitutako graffiti molde gisa. Alabaina, lehen ikusi dugun bezala, postgraffitiaren zuhaitz genealogikoa graffitiarena berarena bezain aspaldikoa da. Bata eta besteak, biak hirurogeiko urte nahasietan sortu ziren, bi faktore nagusiren erantzun gisa: ikusizko espazioa gero eta gehiago merkataritza-identitateen mende jartzen ari zen, eta hirigintza modernoak eragiten zuen alienazioa. Postgraffitiaren kasuan, aurreko bi arrazoi horiei beste bat gehitu zitzaien: arte-sistemaren muga eta hertsadurei aurkakotasuna, eta -hamarkada hartako artearen ezaugarria- ikusleekin bitartekaritzarik gabeko topagune baten bilaketa.

Graffitiak gizartean duen ospe txarraren arrazoi nagusietako bat, garbiketak eragiten dituen gastuez gain, ulertezintasuna da: ikusleek ezin dute irakurri, ezta bere logika, funtzionamendua edo zergatik dagoen ulertu ere. Graffitia ikusleen inguruan gertatzen den arren, ez ditu elkarrizketara gonbidatzen. Horixe da, nonahi agertzeko joerarekin batera, teknika inbaditzailetzat jotzearen arrazoia. Aldiz, postgraffitiaren ezaugarrietako bat, hain zuzen ere, motibo ulergarrien erabilerara jotzea da, eduki abegikor eta hurbiletara, mezu politiko lauso, ez oso konprometitu eta bai erraz ulertzeko modukoetara. Ondorioz, askoz errazago onartzen da postgraffitia.

Batak eta besteak pizten dituzten erreakzioen aldea azaltzen duen faktore bat erabilitako materialak dira. Postgraffitiak uko egiten dio graffitiaren molde gordinenekin duen lotura estuagatik gizartearen subkontzienteak erabat laidoztatua duen aerosola esku hutsez erabiltzearen keinu gaiztoari. Horren ordez, publizitatera ohitutako gizarte batek erraz

(1) Un adhesivo postal estadounidense.

ta del discurso narrativo que va tomando forma con cada pieza. Este juego crea un v'nculo entre las dos partes, una rara forma de relaci n 'ntima que sucede en el espacio p blico.
Casi todos los practicantes del postgraffiti son artistas educados en la tradici n occidental, aunque esa es s lo una de las ra'ces culturales de la corriente. El postgraffiti ha surgido de la confluencia de esa tradici n con varias formas de cultura popular: el punk, el skate y la contrapublicidad, pero sobretodo el graffiti. Se puede considerar heredero de la enorme corriente cultural del graffiti, una forma de graffiti adaptada para todos los p blicos. Aunque la l'nea geneal gica del postgraffiti es tan antigua como la del graffiti, ambos surgieron en los turbulentos a–os sesenta como respuesta a dos factores principales: la creciente dominaci n del espacio visual a manos de las identidades comerciales y la alienaci n inducida por el urbanismo moderno. En el caso del postgraffiti a estos dos motivos se une el impulso de rechazo a las constricciones del sistema del arte y de b squeda del encuentro no mediado con el p blico, caracter'stico del arte de la d cada.

Si el graffiti es percibido socialmente como algo indeseable no es s lo por los gastos que supone su limpieza. Una causa principal es su ininteligibilidad: el p blico no puede leerlo ni comprender su l gica, su funcionamiento o el porqu de su existencia. Se trata de una conversaci n que ocurre dentro del entorno del p blico pero a la que ste no est invitado. M s all de su innegable ubicuidad, sta es la principal raz n por la que resulta invasivo. El postgraffiti en cambio se caracteriza precisamente por recurrir a motivos inteligibles, contenidos amables y cercanos, o mensajes pol'ticos vagos, poco comprometidos y de f cil digesti n. Como resultado, el postgraffiti es en general mucho m s aceptado.
Otra causa de esta diferencia en las reacciones viene dada por los materiales utilizados. El postgraffiti renuncia al hostil gesto del aerosol a mano alzada, fuertemente estigmatizado en el subconsciente social por su estrecho v'nculo con las formas m s crudas de graffiti, y lo convierte a menudo en imagen seriada, papel impreso y l'nea mec nica, elementos con los que una poblaci n habituada a la publicidad puede identificarse f cilmente.

Los adhesivos en el graffiti

En el graffiti la metodolog'a de trabajo es tan importante como los resultados formales, si no lo es m s. La m ltiple aparici n del nombre no tiene valor si no se ejecuta observando las reglas del juego establecidas durante los a–os de su g nesis en Nueva York. La regla n mero uno es la ilegalidad: el soporte debe ser siempre usurpado, y el trabajo en superficies legales sobre las que el due–o ha dado permiso para actuar tiene valor s lo como complemento del trabajo ilegal. La ilegalidad se extiende tambi n a la obtenci n de las herramientas de trabajo: todos los materiales de escritura deben ser robados, desde los aerosoles, rotuladores y tintas hasta los tradicionales cuadernos negros de tapa dura sobre los que se practican las habilidades de escritura y dibujo. Este principio fundamental en la cultura neoyorquina pero no tan presente en su adaptaci n internacional emana de la tica DIY (*do it yourself*, h ztelo t mismo), base conceptual del graffiti y de otras culturas juveniles urbanas como el *punk* o el *skate*. Rotuladores y tintas son en muchos casos fabricados de forma casera.
Es por esto que los adhesivos m s usados en el graffiti son los que se consiguen gratuitamente en las oficinas postales p blicas y privadas de Estados Unidos y que sirven para escribir los datos de un env'o. Hasta tal punto son comunes que la fot grafa Martha Cooper coautora del hist rico *Subway Art*, el libro que export el fen meno del graffiti de Nueva York al mundo convirti ndose en la biblia de millones de j venes publicaba hace poco en *Going Postal*, un monogr fico centrado en este soporte. Aunque los adhesivos m s caracter'sticos del graffiti son aquellos en cuya parte superior figura, sobre un parche rojo, la frase Hello, my name is (Hola, me llamo). Estos adhesivos se comercializan para identificar a los participantes en convenciones, que escriben sus nombres sobre ellos. Son muy f ciles de encontrar en cualquier tienda de material de oficina y por tanto muy adecuados como objeto de robo y ofrecen adem s un buen espacio vac'o sobre el cual demostrar c modamente las habilidades caligr ficas. Hasta tal punto se han convertido en soporte tradicional de la corriente que no es raro encontrar variaciones impresas ex profeso por escritores de graffiti o por tiendas y empresas especializadas, que incluyen a veces publicidad en ellos.
Pero el principal aspecto metodol gico en las reglas del graffiti tiene que ver con el trabajo f'sico y manual.

(2) Uno de los tradicionales adhesivos comercializados para su uso en convenciones.

identifikatuko dituen elementuetara jotzen du: irudi seriatua, paper inprimatua, lerro mekanikoa...

Eranskailuak graffitian

Graffitian, lan-metodologia emaitza formalak bezain garrantzitsua da, agian baita garrantzitsuagoa ere. Izenaren agerrera errepikatuak, ugariak, balore guztia galtzen du, ez bada gauzatzen New Yorkeko lehen urteetan ezarritako arauak beteaz. Lehen araua ilegaltasuna da: euskarriak "lapurtua" izan behar du beti; azalera legaletan egindako lana (alegia, jabearen baimenarekin) lan ilegalaren osagarri gisa baloratzen da soilik. Ilegaltasuna beste esparru batzuetara ere hedatzen da, esaterako, lan-materialen lorpenera: idazketa- eta marrazketa-materialak lapurtuak behar dute izan, hasi aerosol, errotulagailu eta tintetatik, eta trebetasunak praktikatzeko erabiltzen diren azal gogorreko ohiko koaderno beltzetaraino. Printzipio hori, New Yorkeko kulturan funtsezkoa izanagatik ere, ez zen horrenbeste hedatu nazioartean; graffitiaren eta beste hiri-kultura gazte batzuen oinarri kontzeptuala den (hala nola punka eta skatea) DIY ("do it yourself", egizu zuk zeuk) etikatik eratortzen da. Sarritan, errotulagailuak eta tintak nork bere kasa egiten ditu, etxean.

Horrek azaltzen du, esaterako, graffitian gehien erabiltzen diren eranskailuak Estatu Batuetako posta bulego publiko eta pribatuetan bidalketaren datuak idazteko doan eskuratzen direnak izatea. hain dira ohikoak, non Martha Cooper argazkilariak Going Postal izenpean euskarri horri buruzko monografikoa kaleratu duen berriki; Cooper milioika gazteren biblia berria bihurtu, eta graffitia New Yorketik mundu zabalera esportatu zuen Subway Art liburuaren egileetako bat. Graffitian erabilitako eranskailu berezienak adabaki gorri baten gainean "Hello, my name is" (Kaixo, ... deitzen naiz) diotenak dira. Eranskailu horiek jardunaldi eta batzarretako partaideak identifikatzeko saltzen dira, nork bere izena bertan idatzita. Erraz aurkitzen dira bulegotarako material dendetan (beraz, aise lapurtu daitezke), eta tarte huts polita eskaintzen dute norberaren trebetasun kaligrafikoak erakutsi ahal izateko. Euskarri hori hain egin da ohiko, non ez den arraroa graffiti idazleek edo denda eta enpresa espezializatuek propio sorturiko aldaerak aurkitzea, batzuetan publizitatez hornituak.

Baina graffitiaren alderdi metodologiko garrantzitsuena lan fisiko eta eskuzkoa da. Bai sinadura edo tag-ak (aerosolarekin edo errotulagailuekin egindako sinadura monokromatiko linealak), baita throw-up eta piezak (bi edo kolore gehiagorekin margotutako errotuluak), ekintza jakin baten emaitza gisa ulertzen dira. Ekintza hori bere lana in situ egin asmoz graffiti idazleak hesi baten gainetik jauzi egiteko, eraikin baten hormetan gora igotzeko, edo tunel baten barruan sartzeko mugimendua da; horrek guztiak arrisku fisiko eta legezkoak dakartza ondorio. Eta, jakina, ekintza horrek, gainera, baitan hartzen du eskuaren mugimendua, eskulan kaligrafiko eta piktorikoak eskatzen duen trebetasun erakustaldia; lan horrek, gainera, hainbateko denbora tartea behar du, eta tamaina berean areagotzen du atxilotze arriskua.

Horrek berak azaltzen du postgraffitiaren teknika ohikoenetakoa den txantiloien bidez pintatzearena (txantiloiei stencil ere deitzen zaie, motibo konplexu samar bat ziztu bizian errepikatzeko aukera ematen duten material zurrunen gainean ebakitako maskarak dira) eta eranskailuen bidea inoiz onartu ez izatea graffitiaren jokoan, saihestu egiten dutelako esku-trebetasunaren erakustaldi nahitaezkoa. Gainera, txantiloien bidezko jarduna hain da azkarra, non artistak ez duen ia arriskurik hartzen bere gain.

Logika berberaren haritik, eranskailuak oso bigarren mailako materialtzat jo izan du graffitiaren tradizioak. Txantiloiak baino are arinago eta diskrezio handiagoz aplikatu daitezke; beraz, ikusia eta atxilotua izateko arriskurik ez dago apenas. Graffiti idazle gutxik erabili dituzte erruz eranskailuak, eta beti eskulanaren osagarri gisa. Baina ia kasu guztietan eranskailuak eskuz kaliagrafiatzen dira, eta hori da benetan funtsezkoa. Norberaren inprimagailuen bitartez edota inprenta profesionaletan seriean sortutako eranskailuak moztu egiten diote bidea eskulanaren erakustaldiari eta, ondorioz, ez dute inoiz paper garrantzitsurik izan graffitian. Alabaina, material erabiliena dira postgraffitian, txartel eta txantiloiekin batera.

Eranskailuak postgraffitian

Postgraffitia bi joera desberdinen arabera jorratu izan da, joera ikonikoa eta narratiboa deitzen diegu. Shepard Faireyren obra goiztiarrean aurkituko dugu postgraffiti ikonikoaren adierazgarri gorena, ikono sinplea eta berehala irakurtzeko moduko baten errepikatze masiboan baitatza. Joera hori nagusitu zen azken boladaren hastapenetan, The London Police, Flying Fortress eta aipatu dugun Faireyren eskutik. Heldutasunerako bidean, aurrera hartu diete beste artista batzuek (horien artean Swoon, Blu, Eltono, Roadsworth eta Momo), postgrafittiaren joera narratiboaren ordezkariak.

Tanto las firmas o *tags* (las r bricas lineales monocrom ticas escritas con aerosol o rotulador) como los *throw-ups* y las piezas (los r tulos pintados con dos o m s colores) se aprecian como resultado de una acci n. Es el movimiento por el cual el escritor de graffiti salta una valla, escala un edificio o se introduce en un t nel para ejecutar in situ su obra exponi(ndose a los riesgos f'sicos y legales que ello implica. Y por supuesto tambi(n el movimiento de la mano, la demostraci n de habilidad que conlleva el trabajo manual caligr fico o pict rico, que toma adem s cierto tiempo e implica tambi(n por tanto cierto riesgo de arresto.
De ah' que el uso de estarcidos, una de las t(cnicas insignia del postgraffti (com nmente conocidos como plantillas o *stencils*, m scaras recortadas en un material r'gido que permiten la repetici n casi instant nea de un motivo complejo mediante pintura en aerosol(, o el enmascaramiento con cinta adhesiva nunca hayan sido admisibles en el juego del graffiti, dado que evitan la obligada demostraci n de habilidad manual. Las plantillas permiten adem s una actuaci n tan r pida que la necesaria demostraci n de asunci n de riesgos pr cticamente desaparece.

Esta l gica ha provocado tambi(n que los adhesivos nunca hayan sido m s que un material muy secundario en la tradici n del graffiti. Su aplicaci n es a n m s veloz que la de las plantillas y mucho m s discreta, por tanto el riesgo de ser observado y detenido pr cticamente desaparece. S lo algunos escritores de graffiti han hecho un uso extensivo de los adhesivos, y siempre como complemento de su trabajo manual. Pero lo realmente crucial es que en casi todos los casos los adhesivos son caligrafiados a mano. Los adhesivos producidos en serie con medios mec nicos (impresoras caseras o imprentas profesionales(no dan lugar a la demostraci n de habilidad manual y no han tenido nunca por tanto un papel en la escena del graffiti. Son sin embargo, junto a carteles y plantillas, el material estrella del postgraffiti.

Los adhesivos en el postgraffiti

Las actuaciones de postgraffiti se desenvuelven en dos tendencias distintas, que llamamos ic nica y narrativa. La obra temprana de Shepard Fairey es el m ximo exponente del postgraffiti ic nico, que se centra en la repetici n masiva de un icono constante, simple y de lectura inmediata. Esta tendencia ha sido dominante durante el arranque de la actual escena, los a–os en que gente como The London Police o Flying Fortress, adem s del propio Fairey, encabezaban el panorama. A medida que la corriente ha ido madurando otro tipo de artistas como Swoon, Blu, Eltono, Roadsworth o Momo, representantes de la vertiente narrativa del postgraffiti, han tomado la delantera.

La mec nica del trabajo de estos artistas tiene como v(rtice no la repetici n de un icono sino el desarrollo de un contenido narrativo personal a trav(s de motivos cambiantes ejecutados, eso s', con un estilo gr fico caracter'stico. Esta constante formal vincula unas piezas con otras de modo que el p blico las percibe como parte de un todo, gener ndose as' la relaci n entre artista y espectador que constituye la experiencia central del postgraffiti. En la escena de los ochenta casi toda la producci n fue narrativa: tanto Keith Haring como Blek le Rat o Dan Witz trabajaron sobretodo en estos par metros, y s lo Richard Hambleton o el primer Alex Vallauri llevaron a cabo campa–as de postgraffiti ic nico.

A diferencia de lo que ocurre en el graffiti el trabajo manual no es un elemento necesario del postgraffiti. Forma parte de los valores de artistas narrativos como Swoon o Blu, pero es pr cticamente inexistente en la vertiente ic nica, que suele basarse en la impresi n seriada. De modo que en una corriente como el postgraffiti ic nico, que busca la multiplicaci n m xima de una identidad en el espacio p blico sin conceder especial valor al trabajo manual y que siente como propios los valores formales de la copia mec nica, el adhesivo resulta el medio ideal. Por eso ha sido durante a–os su t(cnica estrella, desde la humilde fotocopia hasta las m s ambiciosas serigraf'as sobre vinilo. Es muy sencillo y barato de producir (especialmente a partir de la generalizaci n de la autoedici n y la aparici n de servicios de impresi n online a mediados de los noventa(, tiene un tama–o que permite al artista llevar siempre encima su material de trabajo, y su instant nea instalaci n implica el m'nimo riesgo posible. La capacidad de burlar la ley, b sica en el graffiti, no representa por s' misma un valor principal del postgraffiti, por tanto la inmediatez y seguridad del adhesivo no son factores negativos sino enormes ventajas.

Numerosas publicaciones centradas en el adhesivo (libros, revistas y fanzines(dan idea de la popularidad de la t(cnica entre aficionados y practicantes del postgraffiti. Se han cele-

Artista horien lan-mekanikaren ardatza ez da ikonoen errepikapena, baizik eta eduki narratibo pertsonal bat garatzea, motibo aldakorren bitartez, baina beti estilo grafiko berezi eta bereizgarri bati jarraituz. Logika formal horren arabera, piezen artean loturazko harremanak sortzen dira, ikusleek osotasun baten zati gisa antzematen dituzte. Horri esker sortzen da artisten eta ikusleen arteko harremana, postgraffitiaren muina eta gakoa. Laurogeiko hamarkadan ia produkzio guzti narratiboa izan zen: Keith Haring, Blek le Rat eta Dan Witz molde horren arabera aritu ziren. Richard Hambleton eta hasierako Alex Vallauri izan ziren postgraffiti ikonikoaren bidetik jo zuten bakarrak.

Graffitian ez bezala, postgraffitian eskulana ez da ezinbesteko elementua. Artista narratibo jakin batzuen baloreen artean dago (Swoon, Blu), baina ez da ia batere ageri joera ikonikoaren baitan; azken hori inprimaketa seriatuan oinarritzen da. Beraz, eskulanari balore berezirik aitortu gabe, eta kopiatze mekanikoaren balore formalak aldarrikatuz, identitate jakin bat espazio publikoan ahalik eta gehien biderkatzeko asmoaren bultzada sentitzen duen joerak (hala baita postgraffiti ikonikoa) ezingo zukeen eranskailuak baino bitarteko hoberik aurkitu. Horrexegatik izan da urtetan joera ikonikoaren teknika erabiliena, hasi fotokopia apaletatik, eta binilo gaineko serigrafia bikainenetaraino. Ekoizpen erraz eta merkekoak dira (are gehiago laurogeita hamarreko hamarkadatik aurrera auto-edizioa orokortu egin zenetik, eta on line inprimaketa zerbitzuak agertu zirenetik), tamainak lan-materiala beti soinean eramateko aukera ematen dio artistari, eta bat-batean ipini daitezkeenez, arriskua muturreraino murrizten da. Legeari muzin egiteko gaitasuna funtsezkoa da graffitian, baina ez da, berez, postgraffitiaren balore nagusietakoa; horrenbestez, eranskailuen bat-batekotasuna eta segurtasuna, faktore negatiboak baino, ikaragarrizko abantailak dira.

Liburu, aldizkari, fanzine... argitalpen ugari dago eranskailuen inguruan; horrek erakusten digu ederki zeinen teknika ezaguna den postgraffitiaren zaletuen eta ekileen arten. Hainbat erakusketa egin dira, Berlinen bada museo iraunkor bat, Alemanian 2008an 3 urte bete zituen Stickeraward izeneko nazioarteko lehiaketa egiten da. Lehiaketaren osagarri, erakusketak egin izan dira hainbatetan museo batean, eta katalogo mardul bat argitaratu du Gestalten argitaletxe ospetsuak. Nola ez, web orri espezializatu ugaritan -horixe baita postgraffitiaren komunikabide naturala- mundu zabalean jasotako eranskailuen irudiak biltzen dira.

Eranskailu inprimatuen bitartezko lehen kanpainak New Yorkeko graffiti inguruetan sortu ziren. X-Men hirurogeita hamarreko talde jendetsu bat zen, graffiti idazle oso aktiboez gain, musikari eta dantzariak ere biltzen zituen; ospea izan zuen, ez soilik trenetan egindako lanengatik, baita antolatu zituen festengatik ere. Bada, X-Men taldeko bi kide (Tess eta Dj No), laurogeiko hamarkadaren hastapenetan beren ohiko lana bakoitzaren eta taldearen izenak tipografia sinple eta irakurterrazez idatzitako eta trumilka egindako eranskailuekin osatzen hasi ziren. Garai hura graffitiaren goraldiarena izan zen, metroko bagoien kanpo eta barru alde guztiak goitik behera izenez gainezka zeuden, baita kale asko ere. Alabaina, Tess eta Dj Noren lana nabarmendu egin zen, eta komunikabideen arreta erakarri zuen. Hainbat artikulu argitaratu ziren, eta New Yorkerek txiste bat atera zuen honako testuarekin: "Nortzuk dira Tess eta Dj No?"

Kanpaina hark komunikabideetan izan zuen oihartzuna irakurgarritasunari sor zitzaion, jakina; horri esker, mezuak aurrera egin zuen, sinadura eta bestelako piezen saldoen gainetik. Tess eta Dj Noren eranskailuek uko egiten zioten graffitiaren ohiko estiloari, eta kaleko publikoarengana zuzentzen ziren argi eta garbi... publikoak mezuak beretzat zirela ulertu, eta ondo erantzun zuen. Beraz, postgraffiti adibide gisa har dezakegu irudian izan beharrean testuan oinarritutako esperimentu goiztiar hura. Motibo errepikatuaren aldaezintasuna eta berehalakotasunari esker, kanpainak postgraffiti ikoniko gisa funtzionatu zuen. Ezaugarri horiek berberek definitzen dute baita Revs eta Cost-en lana ere. Bi graffiti idazle horiek kanpaina masibo bati ekin zioten New Yorken bertan, postgraffitiaren aldra berriaren (gaur egun mundu zabalean garatzen ari den berberaren) aitzindari eta suspertzailea. Revs eta Costek Tess eta Dj Noren oinordetza hartu zuten, eta azken muturretaraino eraman zuten haien taktika.

Revs New Yorkeko metroan eginiko graffitiaren azken urteetan aritu zen (1989an amaitu zen behin betirako), Revlon izenpean. 1991ean graffitiaren ohiko praktika alboratu, eta metodo berriekin esperimentatzen hasi zen. 1985an ezagutu zuen beste idazle bat -Cost- antzeko moldeetan ari zela lanean ohartuta, harremanetan jarri ziren eta indarrak biltzea erabaki zuten. Artista biek hirian pertsonaia ezagun bihurtu zituen intentsitate oso handiko kanpainari ekin zioten hainbat urtetan, bai eta poliziaren lehentasunezko helburu. Lanak zenbait taktika berritzaile bereganatu zituen, urteak aurrera graffitiaren eta postgraffitiaren

brado diversas exposiciones, existe un museo permanente situado en Berl'n y un concurso internacional, *Stickeraward*, celebrado en Alemania y que en 2008 cumpli tres a–os. El concurso se ha complementado en diferentes ediciones con una exposici n alojada en un museo y un grueso cat logo publicado por la importante editorial Gestalten. Por supuesto, un gran n mero de p ginas web del medio de comunicaci n natural del postgraffiti especializadas en la t cnica recopilan im genes de adhesivos de todo el mundo.

Las primeras campa–as basadas en el uso de adhesivos impresos surgieron dentro de la escena del graffiti en Nueva York. Tess y Dj No, dos miembros de los X-Men un numeroso grupo fundado en los setenta que inclu'a no s lo escritores de graffiti muy activos sino tambi n m sicos y bailarines, y que consigui fama tanto por su trabajo en los trenes como por sus fiestas comenzaron a principios de los ochenta a complementar su trabajo tradicional utilizando adhesivos y peque–os carteles producidos en masa en los que figuraban sus nombres y el de su grupo compuestos con tipograf'a sencilla y legible. El graffiti viv'a entonces sus a–os de mayor apogeo y todos los exteriores e interiores de los vagones de metro y buena parte de las calles estaban completamente cubiertos de nombres. A n as' el trabajo de Tess y Dj No destac entre la escena y llam la atenci n de los medios de comunicacion. Aparecieron varios art'culos al respecto y el New Yorker public un chiste con el texto Qui n son Dj No y Tess X-Men? .

La repercusi n de esta campa–a en los medios fue consecuencia por supuesto de su legibilidad, gracias a la cual el mensaje se abri paso entre la cacofon'a de capas y capas de firmas y piezas. Los adhesivos de Tess y Dj No renunciaban al juego del estilo propio del graffiti y se dirig'an de forma clara al p blico general, que se dio por aludido. Podemos en consecuencia considerar este temprano experimento como un ejemplo de postgraffiti, basado en este caso no en la imagen sino en el texto. La inmutabilidad e inmediatez del motivo repetido hace que la campa–a funcione como postgraffiti ic nico. Estas caracter'sticas definen tambi n el trabajo de Revs y Cost, dos escritores de graffiti que diez a–os despu s comenzaron en la misma ciudad una masiva campa–a que contribuir'a a desencadenar la nueva oleada de postgraffiti, la que hoy sigue desarroll ndose en todo el mundo. Revs y Cost recogieron la herencia de Tess y Dj No y llevaron su t ctica hasta sus ltimas consecuencias.

Revs particip en los a–os finales del graffiti en el metro de Nueva York desaparecido definitivamente en 1989 utilizando el nombre Revlon. En 1991 abandon la pr ctica tradicional del graffiti y comenz a experimentar con nuevos m todos. Despu s de observar que Cost otro escritor del metro a quien hab'a conocido en 1985 estaba trabajando en direcciones similares contacta con l y ambos deciden unir fuerzas. Los dos artistas desarrollaron durante varios a–os una intens'sima campa–a que les convertir'a en figuras populares de la ciudad y en objetivos prioritarios para la polic'a. El trabajo adopt t cticas diversas y bastante innovadoras, algunas de las cuales se convertir'an con el tiempo en parte del repertorio del graffiti y del postgraffiti. La primera y m s notoria de ellas se bas en el cartel y el adhesivo. En 1992 comenzaron la producci n e instalaci n masiva de peque–os carteles fotocopiados de unos 20 x 30 cent'metros, en unas cien series diferentes de entre 50 y 1000 copias cada una que pegaban sobretodo en las partes traseras de los sem foros. La intensidad del trabajo fue tal que muchos testimonios hablan de carteles en los sem foros de pr cticamente cada una de las intersecciones de Manhattan. La campa–a inclu'a tambi n adhesivos impresos de menor tama–o, una t ctica con la que Cost ven'a trabajando desde 1987 aunque a n sin alejarse de los c digos formales del graffiti.

Los carteles de Cost y Revs reproduc'an sus nombres compuestos con tipograf'a legible acompa–ados en algunos casos de diferentes frases entre cr'pticas y jocosas, sin ning n significado m s all de la broma y el deseo de intrigar. Algunos inclu'an adem s un n mero de tel fono que serv'a a los artistas para recabar opiniones del p blico en un contestador autom tico. La campa–a caus revuelo en la ciudad y en 1993 el *New York Time*s contact con los artistas para averiguar el significado de su trabajo. En marzo de 1994 la revista *Artforum* les dedicaba una entrevista en lo que pareci ser el principio de la inclusi n de Revs y Cost en el sistema del arte, algo que no lleg a suceder. Por el contrario, en diciembre de ese mismo a–o la sonada campa–a lleg s bitamente a su fin con la detenci n de Cost a quien la polic'a secreta llevaba varios d'as siguiendo a partir de la declaraci n de un informante tras pegar un adhesivo sobre una expendedora de peri dicos.

La ciudad de Nueva York viv'a entonces sus

errepertoriora pasako zirenak. Lehena, nabariena, kartelen eta eranskailuen erabileran oinarritu zen. 1992an kartel txiki fotokopiatuak (20 x 30 zentimetrokoak gutxi gorabehera, bakoitzean 50 eta 1000 aleko ehun bat serie desberdinetan) sortu eta instalatzen hasi ziren; batez ere semaforoen atzealdeetan itsasten zituzten. Ikaragarrizko grinaz ekin zioten lanari; izan ere, lekuko batzuek diote kartelak zeudela Manhattango bidegurutze ia guztietako semaforoetan. Kanpainaren osagarrien artean baziren baita tamaina txikiagoko eranskailu inprimatuak ere.

Costek eta Revsek beren izen konposatuak erreproduzitzen zituzten tipografia irakurterrazean. Batzuetan esaldien laguntzaz: esaldi erdi kriptiko erdi umoretsuak, txantxatik eta jakin-mina pizteko gogotik haratago inolako esangurarik gabeak. Batzuetan, gainera, telefono zenbaki bat eransten zen, ikusleen iritziak erantzungailu automatiko batean biltzeko lagungarri. Kanpainak hiria aztoratzea lortu zuen, eta 1993an The New York Times egunkaria harremanean jarri zen artistekin, beren lanaren esanguraz galdetzeko. 1994an Artforum aldizkariak elkarrizketa eskaini zien; bazirudien Revs eta Cost artearen sisteman sartuko zirela, baina ez zen hala gertatu. Aitzitik, urte horretako abenduan bertan entzute handiko kanpaina bertan behera geratu zen bat-batean, Costek egunkariak saltzeko makina batean eranskailu bat itsatsi ostean poliziak atxilotu zuenean (atzetik zuen polizia sekretua azken egunetan, norbaitek informazioa eman ostean).

Urte haietan, New Yorkeko hiria kaleko artearen aurkako borrokan zegoen bete-betean. Gerora delitu txikien kontra jotzeagatik (tartean graffitia) ezagun egingo zen Rudolph Giuliani alkatea hautatu berria zen. Pixka bat lehenago jakin zen Desa graffiti idazle emakorraren aurkako lege-gatazka historikoaren bigarren kapituluaren emaitza: urtebete eta hiru urte arteko espetxe-zigorra Costen aurkako epaiketaren berria barra-barra zabaldu zen. Zigor zentzagarria ezarri zioten: 1600 orduz komunitatearentzako lana (tartean kaleko lanak ezabatzekoa, baita bereak ere), baldintzapeko askatasuna hiru urtez, 2000 dolaretik gorako isuna, eta laguntza psikologikoa jasotzeko derrigorra. Atxilotu ostean, Costek bertan behera utzi zuen kaleko lana, eta desagertu egin zen. Revs Alaskan erbesteratu zen denbora baterako, eta aurrerantzean molde apalagoetan jarraitu zuen lanean, ez ordura arte bezain nabarmen.

Eranskailu bidezko saturazio kasu gertuenekoa BNE izeneko graffiti idazlearena da. Artista hori nazioarteko bokazioaren adibide ona da, postgraffitiak sortzetik beretik berezko osagarri zuen, eta graffitiak laurogeita hamarreko hamarkadatik aurrera bere egin duen ezaugarriarena. Idazle kaliforniarraren lana argotean bonbardaketa deitzen den moldera zuzentzen da, hau da, izena ahalik eta gehien errepikatzera. Beste bonbardaketari batzuek bezala, BNEk uko egin zioen kolore askotako pieza landuak sortzeari, eta sinadurak eta pieza sinple eta azkar egiteko modukoei ekin zien gogo betean. Bere lana hedapen handikoa da, oinarri zuen San Frantzisko hiritik haratago, asko ikusi izan da beste leku batzuetan, hala nola New Yorken, Tokyon, Kuala Lumpurren, Madrilen... Bere eskulanaren osagarri gisa, BNEk eranskailu inprimatuak erabiltzen ditu teknika tradizionalekin aritzeko bereziki konplikatuak diren hirietan, Tokyon esaterako. Japoniako hiriburuan BNEren eranskailu sinple eta tipografia irakurterrazdunak benetako izurrite bihurtu dira, noraino, eta bertako telebistan eta Estatu Batuetako ABC katean berari buruzko erreportajeak egiteraino. Tess eta Dj Noren kasuetan bezala, BNEren eranskailuak eskuz egindako graffiti lan tradizionalaren osagarri dira; alabaina, BNErenenak postgraffiti gisa ulertzen ditugu, irakurterraztasungatik eta eragiten dituen erreakzio sozialengatik.

Baina eranskailuetan oinarritutako postgraffiti kanpaina nabarmenena ez zen graffitiaren inguruan sortu, skate-arenean baizik. 1989. urtean Shepard Fairey skatearen inguruan zebilen, eta lehen ikasturteko ikaslea zen Providence-ko (Estatu Batuak) Rhode Island School of Design-ean. Ia ustekabean hasi zen gaur egun munduan postgraffitiaren liderretakoa bihurtuko zuen, eta aldian-aldian arte-sistemaren goi-mailara igoko zuen lan-moldetan.

Skatea hirurogeiko hamarkadan sortu zen Kalifornian, surfaren lehorreko bertsio gisa. Funtsean, skatea lau gurpildun taula baten gainean akrobaziak egitean datza. Propio prestatutako instalazioetan egin daiteke, edo kalean edo, barandak, bankuak eta hiri altzarietako beste elementu batzuk erabiliz. Skatearen inguruko marka espezializatuek oso nortasun estetiko markatua dute: grafiko ugari, nola taulen gainaldeetan, hala era guztietako merchandising-eko produktuetan ere, batez ere kamiseta eta eranskailuetan. Eranskailuak oso garrantzitsuak izan dira skatearen kulturan; gaur egun bildumagai bihurtu dira. Eranskailuak kultura jakin bateko kide gisa identifikatzen dituzte norbanakoak beren objektu pertsonaletan daudenean, eta harremanetan jartzen dituzte elkarren artean.

a–os m s hostiles al arte de calle y acababa de elegir como alcalde a Rudolph Giuliani, que se har'a famoso por su mano dura con los delitos menores, entre ellos el graffiti. Acababa de conocerse el segundo cap'tulo de la hist - rica batalla legal contra Desa, un activo escritor de graffiti a quien se impuso en esa ocasi n de uno a tres a–os de c rcel. El juicio contra Cost se convirti en noticia y el castigo fue ejemplar: 1600 horas de trabajo comunitario (que incluy borrar obras callejeras, a veces las propias), tres a–os de libertad condicional, m s de 2000 d lares de multa y la obligaci n de recibir ayuda psicol gica. Despu s de su detenci n Cost abandon completamente el trabajo de calle y desapareci de la escena. Revs por su parte se exili un tiempo en Alaska, y su trabajo en adelante adopt t cticas mucho m s discretas.

El m s reciente caso de saturaci n por medio de adhesivos es la campa–a del escritor de graffiti BNE, un buen ejemplo de la vocaci n internacional (desde siempre un componente natural del postgraffiti) que el graffiti ha adquirido a partir de los noventa. El trabajo del escritor californiano est enfocado en lo que en el argot se denomina *bombardeo*, es decir la multiplicaci n m xima del nombre. Como otros bombarderos BNE renuncia a las elaboradas piezas multicolores e invierte toda su energ'a en la ejecuci n de firmas y piezas sencillas y r pidas. Su trabajo se ha extendido mucho m s all de San Francisco (su ciudad base) y ha llegado a tener gran presencia en lugares tan distantes como Nueva York, Tokyo, Kuala Lumpur o Madrid. Como complemento a su trabajo manual BNE utiliza adhesivos impresos, sobretodo en aquellas ciudades especialmente complicadas para las t cnicas tradicionales como es Tokyo. En la capital nipona los adhesivos de BNE (sencillos y compuestos con tipograf'a legible) se han convertido en una plaga inescapable hasta el punto de merecer reportajes en la televisi n local y en la cadena norteamericana ABC, ambos emitidos en 2006. Como en el caso de Tess y Dj No los adhesivos de BNE son el complemento de un trabajo tradicional de graffiti manual, sin embargo su legibilidad y la reacci n social que (sta provoca hacen que los entendamos como casos de postgraffiti.

Pero la campa–a por excelencia de postgraffiti basado en adhesivos no surgi en la escena del graffiti sino en la del skate. En 1989 Shepard Fairey, involucrado en la escena del skate y estudiante de primer curso en la *Rhode Island School of Design* en Providence, Estados Unidos, comenz por casualidad el trabajo que le convertir'a en uno de los l'deres de la actual escena del postgraffiti y eventualmente le llevar'a a situarse en los estratos m s altos del sistema del arte.

El skate es una pr ctica urbana aparecida en los sesenta en California como una versi n terrestre del surf. Consiste b sicamente en la ejecuci n de acrobacias sobre una peque–a tabla con cuatro ruedas, y se practica tanto en instalaciones especializadas como en la calle aprovechando barandillas, bancos y otros elementos del mobiliario urbano. Las marcas especializadas de la industria del *skate* tienen tradicionalmente una personalidad est tica muy marcada que se manifiesta en una gran diversidad de gr ficos, que aparecen tanto sobre las tablas como sobre distintos productos de merchandising, sobretodo camisetas y adhesivos. Los adhesivos han jugado un importante papel en la cultura del *skate* y son objeto de colecci n. Identifican al individuo como miembro de la misma cuando aparecen sobre sus objetos personales y comunican a unos individuos con otros cuando aparecen en la calle.

Adem s de logotipos de marcas y de grupos musicales de ciertos estilos ligados a la cultura los adhesivos reproducen los nombres de bandas de patinadores: algunos patinadores se agrupan informalmente en bandas compuestas por amigos cercanos y pueden difundir la identidad de (stas colocando adhesivos caseros en la calle, sobretodo en las zonas donde se practica el *skate*. En cualquier caso esta costumbre nunca ha sido m s que un componente anecd tico en la cultura. S lo cobra importancia a partir de su adopci n por Shepard Fairey, que parti de ella para desarrollar su sonada campa–a de postgraffiti ic - nico.

Durante sus a–os de estudios en Providence Fairey trabajaba en una tienda de *skate* llamada *The Watershed*. Alrededor de la tienda se form un grupo informal de patinadores apodado *Team Shed* (el equipo shed) que gozaba de un alto status en la escena local del *skate*. Fairey suele narrar el momento en que, buscando una imagen para practicar mientras ense–aba a un amigo a cortar plantillas, tropez en un peri dico con la imagen del grotesco luchador de origen franc s Andr (Andr el Gigante). Andr fue durante los setenta y ochenta una de las m s grandes figuras de la primera generaci n de luchadores de lucha libre televisiva, un deporte espectacular muy popular entonces en Estados Unidos sobretodo entre los ni–os. Su papel en la pel'cula de 1987 The princess Bride (La

(3) El adhesivo original de Shepard Fairey, creado en 1989.

(4) El "icon face" creado por Shepard Fairey en 1995.

Skatearen kulturari lotutako marken eta zenbait musika-estiloren logotipoez gain, eranskailuak patinatzaile-taldeen izenak erreproduzitzen dituzte. Patinatzaileak talde edo bandetan elkartzen dira; batzuetan taldearen identitatea hedatzen dute etxean egindako Eranskailuak kalean itsatsiz, batez ere skatea praktikatzen den inguruetan. Alabaina, ohitura hori bigarren mailako osagarri bat baino ez da izan skatearen kulturan, anekdota hutsa. Garrantzia irabazten hasi zen Shepard Faireyk bere postgraffiti ikoniko kanpaina entzutetsua garatzeko bereganatu zuen unetik aurrera.

Providencen ikasle zen garaian, Fairey The Watershed izeneko skate dendan aritu zen lanean. Dendaren inguruan patinatzaile talde informal bat sortu zen; Team Shed (Shed ekipoa) goitizena jarri zioten taldeari. Estatus handia zuen taldeak inguruko skate zaleen artean. Faireyk kontatzen duenez, lagun bati txantiloiak mozten irakasteko irudi bila ari zela, frantziar jatorrizko André the Giant (André Erraldoia) izeneko borrokalari xelebrearen irudiarekin egin zuen topo egunkari batean. Hirurogeita hamarreko eta laurogeiko hamarkadetan telebistarako borroka librearen lehen belaunaldiko izar handienetakoa izan zen André. Borroka librea oso kirol ikusgarria zen garai hartan Estatu Batuetan, batez ere haurren eta kultura maila urriko jendearen artean. 1987an Andrék "The princess Bride" (Printzesa ezkongaia) pelikulan hartu zuen parte, eta horrek ikaragarri igoarazi zuen bere ospea.

Este camino tortuoso, ondulante pero bello procede de una forma de deambulaci n surrealista introducida en la poca moderna. *La belleza ser convulsiva o no ser* enunciaba Andr Breton en un manifiesto c lebre. En el trabajo de Juan, *Signos sobre signos*, participan en una aut ntica comedia urbana. Estos signos funcionan como una inversi n 'ntima de la ciudad, un reciclaje po tico de lo real urbano, al mismo tiempo aut ntico e impulsivo.

Desde los muros y las empalizadas hasta los metros neoyorquinos, los signos revisten el mobiliario urbano, los transportes p blicos, las calles, los ascensores, los monumentos, las camionetas, las se–ales. Este trabajo de inserci n y afirmaci n del signo es siempre un trabajo en equilibrio, un trabajo de relaci n de fuerza que construye la base de una comunicaci n planetaria, una globalizaci n del signo. Despu s de todo, Renoir no escribi : *cuanto m s local, m s universal* ?

ALUMINIOA ETA KRISTALA

JUAN AIZPITARTE

Fotos realizadas por Juan Aizpitarte, Vitoria-Gasteiz, septiembre 2008.

Hiri estetika garaikidea ez da menturaren ondorio. Ezta 70. hamarkada hasieran New Yorken izandako graffitiaren berpizkundea ere. Hiri barruko komunikazioan, euskarria eta teknika aldi berean joan dira aldatzen, aldaketa sinkronikoa bizi izan dute. Aerosolen eta errotulagailuen berehalakotasuna lagun, graffitiak –gizartearen termometro horrek– agertoki publiko bihurtu ditu hiriak.

Megahirietan norbanakoen adierazpen piktorikoak pertsonalizazio-prozesuaren hurrengo estadiorako bidea iragartzen du, alegia: banakako anonimoen errepresentazio publikoa, goitizen ikonografikoa bitarte. Berehala datorkigu, gainera, estadio-aldaketa hori. Hiri-artistaren figura ari zaigu sortzen, herritar parte hartzaileena. Hiri-artistak, mezuaren eta moldearen arteko sintesia lagun, publizitatearen jarduteko irizpide berberak erabiltzen du: bonbardaketa, alegia. Norberaren estiloa erakusteko asmodun bandalismo hiritarra, beti ere giltzarri sekretuz mozorrotua (Nickname / Brand / Crew).

Lurraldearen definizioa begi bistako bihurtzen dute sinadura (Tag) eta pintadek (Throughup / Toptobotton / Wholecar), bai eta egileen gurari eta kezkek ere. Oroimenezko horma-irudiek, gainera, hildakoak duintzen dituzte, eta gainontzekooi informazioa ematen digute.

Aldi berean, hiriaren epidermisa aldatu egin da, lehen kareharri porotsu zena, orain azalera lau eta uniforme bihurtu da; gainera, nonahi zeuden espraientzako antidotoa aurkitu du: pinturaren aurkako laka poro-estalgarriak, alegia. Hiriak ihes egin die aerosoletako pigmentuei; homogeneo eta iragazgaitz ageri zaigu, look postmodernoaren moldetan. Ezin makillaje egokiagorik aurkitu, 80ko hamarkadako oroitzapenen zimurrak ahanzturaren bazterrean zokoratzeko.

Alabaina, erasoaldi grafikorako materialak, superfizie-aldaketara egokitzen asmatu dute berriro ere, eta berehalakoan berriro ere, denbora errealean. Baina oraingoan euskarri industrialen bitartez, informaziozko eta seinaleztapenezkoen bitartez. Hara, eranskailuan garaia da. Kaleko komunikazioaren baitan, eranskailuak sektore berri baten tresna eta adierazpide bihurtu dira. Lehen, eranskailuen funtzio praktikoa euskarriei behin betiko definizioa ematea zen. Zer da? Nork egin du? Zenbat balio du? Noiz artekoa da? Zenbat pisatzen du? Handia edo txikia da? Inguratzen gaituzten objektuen argazki-oina dira. Eranskailurik gabe, inguratzen gaituzten gauzei buruzko gure ikuspegia subjektiboagoa litzateke. Era askotako eranskailuak daude: ofizialak, funtzionalak, deskribatzaileak, azalpenezkoak, debekuzkoak, apaingarriak, oroitzapenezkoak... baina den-denek deskribatu, aurkeztu eta azaldua izan behar duen zerbaitetan hartzen dute oinarri.

ALUMINIO Y CRISTAL

JUAN AIZPITARTE

La est□tica urbana contempor nea no es casual. Como tampoco lo es el renacimiento del *graffiti* a principios de los 70 en Nueva York. En la comunicaci n urbana dentro de las ciudades, soporte y t□cnica han sufrido una transformaci n sincr nica. El *graffiti*, como un term metro social, convierte la gran ciudad en un escenario p blico, gracias a la inmediatez del aerosol y los rotuladores.

En la megaurbe, la expresi n individual pict - rica, anuncia el inminente cambio del proceso de la personalizaci n hacia su pr ximo estadio; la representaci n p blica del individuo an nimo, a trav□s del seud nimo con car cter iconogr fico. As' surge la figura del artista urbano o ciudadano participativo.
Representado por una s'ntesis entre mensaje y forma, sigue los mismos principios de acci n que el mundo de la publicidad: el bombardeo. Vandalismo urbano orientado a la exhibici n del estilo individual, disfrazado en clave secreta (*Nickname / Brand / Crew*).

La definici n del territorio se hace visible como consecuencia de las firmas (*Tags*) y pintadas (*Throughup / Toptobotton / Wholecar*), as' como las inquietudes y aspiraciones de sus autores. Los murales memoriales tambien dignifican a los difuntos e informan al resto.
Al mismo tiempo, la epidermis de la ciudad se regenera de calizas porosas a superficies planas y uniformes, y encuentra el ant'doto al spray todoterreno en las lacas repelentes tapaporos. La ciudad huye de los pigmentos del aerosol y se muestra ahora homog□nea, impermeable y con un *look* postmoderno. El maquillaje adecuado para olvidar las rugosidades de la memoria de los 80.

De nuevo, los materiales de asalto gr fico se adaptan a tiempo real a este cambio de superficie. Pero esta vez, a trav□s de soportes industriales como los de la informaci n y se–alizaci n. Es el momento del adhesivo. La pegatina, se proclama como la herramienta y veh'culo de un nuevo sector dentro de la comunicaci n popular. Antes, su funci n pr ctica hab'a sido la de dar una definici n ltima a los soportes. Qu□ es? Qui□n lo produce? Cu nto cuesta? Cu ndo caduca? Cu nto pesa? Cu nto ocupa? Son el pie de foto de los objetos que nos rodean. Sin ellas, cada uno tendr'a una percepci n mas subjetiva de las cosas. Hay adhesivos oficiales, funcionales, descriptivos, expeditivos, prohibitivos, informativos, decorativos, conmemorativosÉ pero todos se apoyan sobre algo que necesita ser descrito, presentado y explicado.
En la actualidad, al igual que los objetos, las personas y los lugares, adem s de ser, deben definirse, significar y complementar as' el paisaje de la comunicaci n visual. Por ello, se hace comprensible que los ciudadanos a–a-

Fotos realizadas por Juan Aizpitarte, Vitoria-Gasteiz, octubre 2008.

Gaur egun, izate hutsa ez da nahikoa; objektuak bezala baita pertsonak eta lekuak ere definituak izan behar dute, esangura izan behar dute, hartara ikus-komunikazioaren paisaia osatu ahal izateko. Horregatik, ulertzekoa da herritarrek ere beren ikuspegi partikularrak adierazi nahi izatea; izan ere, gaur egun, auto-errepresentazioa eta izatea bera eskutik doaz, bata bestearekin nahitaez.

Horrek teknologia digitalaren demokratizazioa erakusten digu, hirigintza-aktibismoaren prozesu ez ofizial bat amaitu berri duen teknologia digitalaren demokratizazioa; prozesu bat non transgresioa urritu egin den, nahasmenaren mesedetan, non probokazioa ez dagoen jada gizarte-iraultzan, baizik eta hiri paisaiaz bereganatzeko eta dekonstruitzeko moduan. Publizitate-iragarkiak, trafikoaren seinaleztapena, sistemaz kanpoko ekimenak... Horien guztien artean, hiriek fikzioko ikur elkargurutzatuen zirkuituak dirudite, beti ere ezerezaren komunikazioa azken muturreraino daraman zurrunbilo zoro baten eldarnioaren baitan.

Hiria adi jarri da, eta kontraeraso egiten dio akats uniformizatzaileari: berriro ageri dira klariona eta argizariak gaur egungo hiri altzarietako pintura zimurtsuen eta itsasgarrien aurkakoen gainean. Espaloi mailan, plano jarrai eta zeharkaezin batek hurrengo mutazioa ekarriko du: kristal-azidoak eta birrinketa lagun, erasoen jomuga hormak baino, merkataritza lokaletako erakusleihoak bihurtu dira. Publikoaren eta pribatuaren arteko mugan gaude, inbasio-frankiziaren, bideoz zaindutako espazioaren, eta igarobidearen arteko mugan.

Gaur egun, markek bere egina dute fenomeno hori guztia: arropa eta osagarrien diseinuetan, tipografietan, koreografietan... Hip-hopa bera ere xurgatu du merkataritzak.

Posterrak, sticker-ak, kale-ekimenak, jaialdiak, topaketak, erakusketak, lehiaketak.... Kalitatezko produktua, eta ondo egina. Eros ezazu iraultza! Erresistentziaren estetika.

Hiria, mezu labur, azkar eta galkorren, mezu trukagarrien eta identitate zehatzik gabeen euskarri gisa ulertzen da. "No mans land" aldirietatik etorri eta sartu da, erdiguneak memoria historikoz hustuaz. Antza, ez du ezertarako balio lekuez hitz egiteak, espazioaz baizik.

Egunero garbitzen dira kaleak, baita beren oroimena ere.

Nire hiria, beti etorkizunari so, prest dago kanpora atera eta mundua liluratzeko. Hiriaren zaurien berri emango diote sakontasunez begiratzen dakienari, bertako bazterretako xehetasunek. Erakusten duenak, baina baita ezkutatzen duenak ere. Gu garenaren batuketa da. Gaudenok, markatu egiten dugu. Bere azalean, nire izena dago, mila bider idatzia; mila jantzi eramango ditu soinean.

dan su visi n particular dentro de la ciudad, ya que hoy en d'a, la auto-representaci n y la existencia van unidas.

Es la democratizaci n de la tecnolog'a digital, la que acaba por completar un proceso de activismo urban'stico no oficial; donde la trasgresi n se minimiza en aras de la confusi n, y la provocaci n ya no est en la rebeli n social, sino en la manera de apropiarse y deconstruir el paisaje urbano. Entre los anuncios publicitarios, la se–alizaci n que deriva del tr fico y las intervenciones *outsiders*, la ciudad parece un circuito de signos de ficci n entrecruzados que llevan a la saturaci n del delirio de la comunicaci n de la nada.

La ciudad alertada, contraataca al uniforme error, y vuelven la tiza y las ceras sobre las pinturas rugosas y anti-adhesivas del mobiliario urbano actual. A pie de calle, un plano continuo impenetrable origina la siguiente mutaci n: el acido de cristales y el rallado traslada el lugar de ataque, del muro al escaparate de vidrio del bajo comercial. Es la frontera entre p blico y privado. Entre franquicia invasiva, espacio v'deo vigilado y lugar de tr nsito.

Hoy, todo el fen meno ya ha sido absorbido por las marcas. En dise–os de ropa, de accesorios, tipograf'as, coreograf'as. El *hip-hop* est dentro del mundo comercial.
P sters, *stickers*, intervenciones urbanas, festivales, encuentros, exhibiciones, concursos. Un producto de calidad y bien elaborado. ÁCompra rebeli n! Est tica de la resistencia.

La ciudad se asume como soporte de mensajes ef'meros, intercambiables y sin identidad concreta. El *No mans land* se ha adentrado desde el extrarradio, vaciando los centros de su memoria hist rica. No parece que sirva de nada hablar de lugares, sino de espacio.
Las calles son lavadas a diario y sus recuerdos con ellas.

Mi ciudad, que mira siempre por su futuro, est lista para salir y seducir al mundo entero. Quien la mira a fondo, sabe de sus heridas por los detalles en las esquinas. Por lo que ense–a y lo que tapa. Ella es la suma de lo que somos. Los que estamos, la marcamos. Lleva en su piel mi nombre escrito mil veces, y sobre ella, ir n mil vestidos.

VENDE
Ti aMo

VENDE

945 27 11 00
VENDE
VXG

“Zeinuak zeinu gainean” jardunaldi-tailer teoriko-praktikoak Juan Azpitartek zuzendu zituen hirigintzaren, sorkuntza garaikidearen, diseinuaren eta neo-grafitiaren arteko harremanak aztertzeko asmoz.
Tailerra 2008ko azaroaren 5etik 8ra egin zen Hiriagunean, eta Vitoria-Gasteizko hainbat lekutara zabaldu zuten egun batzuetan.
Aldika aztertu zituzten hiri diskurtso horretako planteamenduak: Hiri ikuspuntu teorikoak eta sarrerak bateratu zituzten hiri formen beharrak zehaztu eta sorkuntza arloko ariketa praktikoak egite aldera.
Abiapuntu gisa, ikasleek “Brote” eranskin liburua aztertu zuten, bertsio digitalean, eta hortik abiatuta aukera eman zitzaien zeinu irekiak eta esanahi berriak konposatzeko.
Ariketa praktikoak ordenagailuz eta eskuz egin zituzten hiria hizpide hartuta; honako egitekoak izan zituzten: hainbat gai proposatu, eduki berriak sortu eta hiriko hainbat lekutan esku-hartu.

IKASLEEN PROIEKTUAK





Signos sobre signos fueron unas jornadas-taller te rico-pr cticas dirigidas por Juan Aizpitarte sobre las relaciones entre urbanismo, creaci n contempor nea, dise–o y post-graffiti.
El taller tuvo lugar entre los d'as 5 al 8 de noviembre de 2008 en Espacio Ciudad y se extendi por diversos emplazamientos de Vitoria-Gasteiz durante un tiempo.
La forma de abordar estos planteamientos acerca del discurso urbano fue alterna, combinando introducciones y puntos de vista te ricos con visiones de la ciudad con el fin de ir articulando necesidades formales urbanas y ejercicios pr cticos de creaci n.
Como base, el libro Brote de adhesivos, que en su versi n digital permiti a los alumnos reeditar los signos abiertos y componer nuevos significados.
Los ejercicios pr cticos se realizaron con ordenadores, manualmente y sobre la ciudad proponi ndose varios temas para que los alumnos crearon sus propios contenidos e intervinieran en algunos puntos urbanos.

TRABAJOS DE LOS ALUMNOS


ALDECOA

Ikasi beharrean....
Tengo que estudiar....
(back to the past)

Angel López de Luzuriaga

Hiriaren iraganera itzultzea. Egun unibertsitate eremua den horretan hainbat hamarkada atzera egiten duen ekimena.
Trenbidetik bestaldean dagoen eremurako ekintza. Igarobide eta ikasle ugariren egonlekua. Antzina inguru degradatua zen, bertan ziren zoro-etxea eta kuartelak, gerora abandonatu egin zen.
Ideia orban estiloko zuri-beltzeko irudia ipintzea da. Haur txiki bat (egilea bera, eskolako lehen egunean, 70eko lehen urteetan), eskuan maleta daramala, eskolan nola joango zaion jakin nahiak artegatzen duela. Haren ondoan, lelo topiko hauxe, oso garaiko "DymoFontInvers" tipografian (Dymo markagailuarena) idatzita: "ikasi egin behar du, aurrerantzean gizon zintzoa izateko". Esaldi horrek, atzean dituen konnotazio guztiekin (autoritatea, matxismoa, zuzentasuna.... oso garai hartako kontzeptuak) galdera kezkagarriak piztu nahi dizkie ikasleei, esaterako: zer ote da "gizon zintzoa izatea", edo noiz ote da "aurrerantzean" delako hori...



Vuelta al pasado de la ciudad. Acci n que se retrotrae unas cuantas d□cadas en la actual zona universitaria.
Actuaci n planteada en este rea, al otro lado de las v'as del ferrocarril. Lugar de paso y estancia de multitud de estudiantes. Antiguamente era una zona degradada, ocupada por el manicomio, cuarteles y despu□s abandonada.
Surge la idea de colocar una imagen en blanco y negro (estilo mancha). Ni–o peque–o (el autor, primer d'a de clase a principios de los 70) con cartera en la mano, espectante ante su futuro escolar, junto con el t pico tengo que estudiar para ser un hombre de provecho el d'a de ma–ana escrito en tipograf'a DymoFontInvers (la del aparato de marcar Dymo) muy de la □poca. Esta frase, con todas las connotaciones de: autoridad, machismo, rectitud (una serie de conceptos muy de aquel tiempo), pretende plantear interrogantes inquietantes entre los estudiantes ante conceptos como que es ser un hombre de provecho o saber cuando llega el d'a de ma–ana .

Green belt 1

Javier Aldarias
y Miguel Ángel Rojas

1. ekimena. Desio izeneko tranbia.

Gasteiz hiria hiri iraunkorraren paradigma izatearen autoatseginkeriaren zurrunbiloan bizi da: paisaia hiritarra eta naturala ezin hobeto zainduz, eko-mugikortasuna, uraren eta hondakinen kudeaketa egokia, sustatuz, etab... Hiria ito egin du horrenbesteko txukuntasunak, bere bilakaeraren beraren biktima da. Gasteizko zoladura aseptikoan planifikatu gabeko, nahi gabeko bi marra agertzeak ateak ireki dizkie ikuspegi berriei, espazio publikoaz jabetzeko beste modu gorabeheratsuago bati. Jendea marra horien agerpenaren lekuko da, erabiltze- eta gozatze-alternatiba berriak, espazio ez erabakigarri eta ez desiratu horiek aldarrikatzeko formula berriak eskaintzen dituzten, eta askatasun artistikoak horren beharrezko duen ohartezintasunaren zentzua igortzen duten marren agerpenarena.

Vitoria-Gasteiz hiriko espazio irekien eboluzioa aztertuz, haren haritik zabaldu den baikortasun kutsakorraz oso bestelako ondorioak ater daitezke. Eraztun berdea hiriaren hazkuntza erakarri du; hiria ekialdean eta mendebaldean hazi da ex-novo sortutako bi zabalguneren bitartez. Zabalgune berri horiek eraztunera ohiko saihesbide arrunt bat bailitzan hurbildu dira eraztunera. Alboetan dituzten parkeen izena hartu duten (Zabalgana eta Salburua alegia) arkitektura garaikidearen moldeen araberako auzo berri bi horiek eko-hiria osatzen dute, trinkotu, soberako espazio ez desiratuak deuseztatu. Alabaina, irregulartasun bat erakusten du eraztunak, hutsune bat hegoaldean, hazkuntzaren mendetasunetik at dagoena, eskualde mailako nekazaritza giroaren sarbide.

Acci n 1. Tranv a llamado deseo.

La ciudad de Gasteiz se encuentra en el bucle autocomplaciente que supone el ser el paradigma de la ciudad sostenible, cuidando escrupulosamente sus paisajes, tanto urbano como natural, fomentando la eco-movilidad, la gesti n de agua, residuosÉ La ciudad se asfixia en su pulcritud y es victima de su propio devenir. Al aparecer rotuladas en su as□ptica pavimentaci n dos trazas no planificadas, no deseadas, se abre la puerta a nuevas miradas, a otra manera m s azarosa de apropiarnos del espacio p blico. La gente asiste a la aparici n de estas l'neas que ofrecen nuevas alternativas de uso y disfrute, nuevas formulas para reivindicar esos espacios no decisivos y no deseados que transmiten el sentido de imprevisibilidad tan necesario para la libertad art'stica.

Analizando la evoluci n del sistema de espacios libres de la ciudad de Vitoria- Gasteiz se pueden sacar algunas conclusiones que difieren del contagioso optimismo instalado en la operaci n. El anillo ha servido como atracci n de lo urbano, la ciudad ha crecido al este y al oeste con dos importantes fragmentos ensanches creados exnovo, que finalmente se acercan al anillo como si de una infraestructura o ronda de circunvalaci n convencional se tratase. Estos dos desarrollos de arquitectura contempor nea que toman el nombre de los parques contiguos -Zabalgana y Salbur a- completan la eco-ciudad, la compactan, eliminando espacios no deseados, sobrantes. Sin embargo existe una irregularidad en el anillo, un vac'o al sur de la ciudad que se mantiene impune al crecimiento y que permite la entrada de lo rural desde una escala regional.

Green belt 2

Javier Aldarias
Miguel Ángel Rojas

2. ekimena. Salburuko parkea.
Eraztuneko seinaleak adierazteko ohiko kodea erabiltzen da: borobil hori bat, trenbide-trabesa baten gainean margotua. Parkean zehar egingo dugun lehen hurbilpenak ibiltzera gonbidatuko gaitu; bigarrenak, egindako bidea markatzera. Horretarako, gure ibilbidea espazializatu egingo dugu, dauden seinaleak erabiliz, baina euren esangura biderkatuz, bersemantilizatuz (ikurrak ikurren gainean), .Azkenik, ibilbidea itxi egingo zaigu, hirikoa bere bertsio gordinean agertzearekin batera, hain zuzen hiri modernoetan ohiko bihurtutako eraikin monofuntzional altuak. Espazio berri hauetan ordenamendu berriak eta, horrenbestez, harreman mota berriak bilatzeko esperientziak proposatu beharko lirateke.
Hartara, Itxi eraztuna, paradoxa bihurtzen da, antonimia bat. Perimetroa ixten den unean, hiria hil egingo da. Amaiera emango diegu arautu gabeko espazioei, alegia espazio legitimoen eta hiri garaikideetako benetako birikei

Acci n 2. El parque de Salbur a.
La se–al□tica del Anillo utiliza un c digo de signos convencional, un circulo amarillo sobre una traviesa de ferrocarril. o, para ello vamos espacializando nuestra trayectoria utilizando la se–alizaci n existente pero multiplicando su significado, resemantiz ndola, -signo sobre signos-. Finalmente se cierra nuestro recorrido apareciendo lo urbano en su forma m s dura, edificios monofuncionales en altura, t'picos de la periferia de la ciudad del movimiento moderno. En estos espacios de transici n se debieran proponer experiencias que busquen nuevos ordenes y por tanto nuevas relaciones.
Itxi eraztuna se convierte en una paradoja, una antonimia. En el momento en que se cierre el per'metro la ciudad habr muerto. Habremos acabado con los espacios no regulados que a la postre son los m s leg'timos y los aut□nticos pulmones de la ciudad contempor nea.

Seinale alternatiboak Kultur Etxerako

Blanca Rodríguez

Señalética alternativa para la Casa de Cultura

Florida parkearen sarreran kokatutako eraikina kultur erreferente bat da hirian. Bertako sarrerak eta erabilera publikorako espazioak modu ludiko eta iradokitzailean seinalatzea pentsatu zen.
Ikono bidezko seinaleztapen lan honetan dimentsio atenporala suma dezakegu; izan ere, kobazuloetan erritoak adierazteko ikur berberek ez dute indarrik galdu plastikoki.

Giza arrazaren ikur unibertsala den eskuak ere lengoaia eta adierazpide ugari hartzen ditu, kultur testuinguruaren arabera. Kultur etxean, erabiltzeak orientatzen ditu, mimoek bezala, keinu bidezko hizkuntza zuzen baten bidez.

El edificio un referente cultural de la ciudad situado a la entrada del Parque de la Florida, fue repensado para se–alizar de una forma l dica y sugerente sus diferentes accesos y reas de uso p blico.
En este trabajo de se–al tica de iconos podemos apreciar una dimensi n atemporal, ya que el mismo signo que serv'a en las cuevas para marcar los rituales, sigue vigente a nivel pl stico.
La mano, signo universal del la raza humana, tambi n contiene numerosos lenguajes y formas de expresi n en cada contexto cultural. En la Casa de Cultura, orienta al usuario como un mimo, con un lenguaje gestual directo.

Eraztun berdea

Zuriñe Celaya

Anillo Verde

Eraztun Berdea ezaguna da Gasteiztik kanpo. Harro gaude gure Eraztun Berdeaz. baina... herritarrek, oro har, baloratzen al dute?, gozatzen al dute?, bisitatzen ote dute?
Hausnarketa horretatik sortu da Gasteizko Eraztun Berdea gogoratzearen eta nolabait suspertzeko ideia.
"Ezagutu ezazu Eraztuna", zure zeure hiritik atera gabe indar berriak hartzeko aukera ona duzu eta...
"Bisitan ditugu Eraztuneko biztanleak", hiriaren erdira datozkigu bisitan, badirena jakinarazi nahi digute, arreta eskatzen digute.

El anillo verde existe. Lo conocen fuera de Vitoria-Gastez. Nos gusta presumir de □. Pero los ciudadanos de la ciudad lo valoran? Lo disfrutan? Lo visitan?
De esta reflexi n surge la idea de recordar la existencia y promocionar de alguna manera el Anillo verde de Vitoria-Gasteiz.
Ench fate al anillo es una buena manera de cargarte las pilas en tu propia ciudad.
Los habitantes del anillo nos visitan , visitan el centro de la ciudad, nos recuerdan su existencia, nos reclaman su atenci n.



TU SiEgAS?

TU SiEgAS?

Zu, sega-lanetan?

Zuriñe Celaya

¿Tú siegas?







Gure garaiko pertsonek bere egindako egintza erreflexu jakin batzuen gaineko hausnarketa da: esaterako, neurriz gaineko garrantzia ematen zaio lorategi bati, parterre bati, garaiko lorez betetako errotondari, edota golf zelaiko soropilari...

Erakusteko lorategia baino ez, iraunkortasunak eta landaretzaren ziklo naturalak zeresan eskasa duten lorategia. Zeregin asko bai onik mantenduko bada (inausketa, sega, ureztapena, lekuz aldatzea, diru asko...), eta soilik apaintzeko. Zu, sega-lanetan aritzen zara?

Propone una reflexi n acerca de algunos actos reflejos adoptados por los ciudadanos de la sociedad actual, donde se sobrevalora un jard'n, un parterre, una rotonda llena de flores de temporada o un c□sped de campo de golfÉ

Un jard'n florero, donde la sostenibilidad y el ciclo natural de la vegetaci n poco tienen que decir. Mucha gesti n, podas, siegas, riegos, trasplantes, mucho gastoÉ s lo para adornar. T siegas?.

Hiriarekin solasean

Sebastián Bayo Oñoro

Abrir diálogos a la ciudad

Behingoz hiriak berak eskatzen du herritarren arreta. Hiria mintzo zaigu, bere iraganaz hitz egiten dugu, egungo egoeraz, etorkizunean zer eta nolakoa izan nahi duen adierazten digu. Nazkatu eta aspertu egin da horrenbeste jendek bere arima bereganatzeaz, bere izaera zehazteaz, bere etorkizuna erabakitzeaz. Era guztietako jendea dihardu horretan, hara: politikariek, erlijiosoek, sustatzaileek, industriagizonek, abokatuek, arkitektoek, ingeniariek, historialariek, ingurumen arloko ikerlari eta langileek, merkatariek, sindikatuek, udaltzainek, auzo elkarteek, guraso elkarteek, kirol taldeek, prostituta elkarteek, gay eta lesbianen elkarteek, tribu urbanoek... Herritarra gelditu, eta arretaz entzuten dio hiriak esan behar dionari. Interbentzioak ohartarazi egin nahi du fenomeno horren gainean... Sarritan, kanpo-dialogoak hizketan dagoen pertsonari begiratzen dion buztandun bunbuilo baten barruan sartzen da... Bunbuilo itxurako eranskailuen bitartez hiria mintzo zaigun lekuak bereizten dira.

Por una vez es la propia ciudad la que reclama la atenci n de los ciudadanos. Se expresa y nos habla de su pasado, de su situaci n actual; nos transmite su vocaci n de futuro. Harta de que pol'ticos, religiosos, promotores, industriales, abogados, arquitectos, ingenieros, historiadores, medioambientalistas, comerciantes, sindicatos, agentes del orden p blico, asociaciones vecinales, asociaciones de padres y madres, clubes deportivos, asambleas de prostitutas, gays y lesbianas y tribus urbanas, se apropien de su alma, reclamen su tutor'a, determinen su car cter, decidan su destino.? El ciudadano, el transe nte, se detiene, pone atenci n a lo que la ciudad dice.? Se plantea la intervenci n como llamada de atenci n sobre este fen meno.?ÉE l dialogo externo se encierra a menudo dentro de un globo (bocadillo) de palabra con un puntero o cola hacia la persona que hablaÉ Mediante adhesivos con forma de bocadillo se significan lugares en los que la ciudad habla.

CCTV: Interbentzio bat Gasteizko hirigune historikoko arranpa automatikoetan

Natalia Aragón / Nerea Lekuona

CCTV: Intervención en las rampas automáticas del casco histórico de Vitoria-Gasteiz

“Zainketa botere bat da, eta haren xedea pertsonek arauak, legeak eta zereginak boterean dagoenaren gurarien arabera bete ditzaten lortzea” Michel. Foucault.

Zainketak eragina dauka pertsonen gorputzengan, keinuengan, diskurtsoengan, jarduerengan, ikaskuntzagan eta, oro har, eguneroko bizitzan.

Zainketa zenbait elementuren bitartez gauzatu daiteke; horietako batzuk osatzen duten gizartearen bertatik atera eta heziak, berriro bertan txertatzeko (polizia, guardia zibila, etab.). Beste batzuk elementu teknologikoak dira, hala nola kamerak (trafikorako, bankuak, gobernuko erakundeak eta erakunde pribatuak zaintzekoak, eta orain, baita monumentuak eta kale garrantzitsuak ere) Hirian zehar han-hemenka kokatutako kamera horiek hertsatu egiten du nolabait gizarte-masa, diskrezio-maila handiz hertsatu ere. Gogoratu egiten du pixka bat Foucaulten panoptikoa; izan ere, hura hartzen du oinarri: egituraketa konplexu bat osatzen da hiria kanpotik barrualderantz ikusi ahal izateko (eraztun baten erara, dena barrualdera), eta, aldiz, kanpoalderanzko ikuspegi bakar bat, kanpo-eragin agresibo edo subertsiboen eragin balizko oro eragotzi asmoz. Hara, kamera horiek gure egunerokotasunaren berri hartu eta islatzen dute; badakigu behatu egiten gaituztela, baina ez dakigu ez nondik, ezta noiz ere. Horrenbestez, gure portaera estatu-aparatuek ezarritako arauen arabera makurtzen da.

Gasteizko hirigune historikoko arranpa automatikoetako interbentzioak ohartarazi egin nahi du kaleko jendea, erabiltzaileak, herritarrak oro har, filmatzen ari direla, behatu egiten dituztela, kontrolpean dituztela... Seinaleztapenaren bitartez hirian aldez aurretik ezarritako seinaleekin nahastu nahi duten irudi eta elementu jakin batzuk lortu ziren, eta horien bitartez jakinarazi egin nahi zaie herritarrei nion ibili daitezkeen lasai, dena ikusten duen begiaren menpetik at. Aldi berean, norberaren bizitza pribatua non amaitzen den eta publikoa non hasten den berpentsatzeko gonbitea da.

La vigilancia es un poder destinado a educar a las personas para que cumplan normas, leyes y ejercicios con la voluntad de quien detenta el poder (Michel Foucault).

La vigilancia act a sobre el cuerpo de los individuos, sus gestos, sus discursos, sus actividades su aprendizaje y su vida cotidiana en general.

La vigilancia, puede darse a trav□s de varios elementos; algunos de ellos extra’dos y educados para ser insertados dentro de la misma sociedad de que son parte (polic’as, guardias, civiles, guardas jurado etcÉ) otros son de car cter tecnol gico como las c maras, (que pueden ser de tr fico, de vigilancia de bancos, de instituciones gubernamentales, instituciones privadas y ahora en monumentos y calles transitadas con frecuencia). Estas c maras posicionadas en la ciudad, permiten de un modo discreto mantener cierta coerci n dentro de la masa social; un poco recordando y bas ndose en el pan ptico de Foucault donde se advierte toda una compleja estructuraci n de la ciudad para ser vista desde fuera hacia adentro (como un anillo, todo hacia el centro), y con una sola vista hacia fuera para que ning n agente externo incida de modo agresivo/subversivo en ella; dan cuenta de la cotidianidad por la que nos movemos. Nos sabemos observados pero no sabemos desde donde y cuando, por lo tanto nuestro comportamiento esta regulado y supeditado a normas establecidas por el aparato de estado.

La intervenci n en las rampas autom ticas del casco hist rico de Vitoria-Gasteiz, trata de avisar a los usuarios de la calle, los transe ntes, los ciudadanos en general; que est n siendo filmados, observados, vistos, controlados. Es a trav□s de la se–al□tica que se lograron una serie de im genes y elementos que pretenden mezclarse con los signos ya establecidos en la ciudad, que servir n para mantener sobre aviso a las personas por donde pueden transitar libremente sin ser captados por el ojo coercitivo. Es tambi□n una invitaci n para pensar en re-significar en donde termina nuestra privac’a y se vuelve p blico nuestro vivirÉ

Futbol baloi baten sinboloaren aldaketa

Toño Antón

Modificación del símbolo de un balón de fútbol

Interbentzio hau sormenezkoa, ludikoa eta ironikoa da aldi berean; gainera, bat egiten du erabat egileak "Oharkabean lagun" izenpean garatu dituen argazki-proiektuei darien izaera sozialarekin, aldarrikapen izaerarekin. Proiektu horien funtsa hirian aurretiaz dagoen elementu jakin bati zerbait sinplea erantsita pieza berri bat sortzea da, argazkiaren bidez jasota geratuko dena.
Elementua honek labanaren agresioa jasotzen du, eta kirol dendetan edota pilota-kirolak praktikatzen diren lekuetan erabiltzeko eranskailu bihurtzen da.

El m ltiple car cter de intervenci n creativa, l dica e ir nica que adem s queda perfectamente abierta al car cter reivindicativo o social unido al vinculo del autor con proyectos fotogr ficos que denomina Colaboraciones involuntarias , las cuales consisten en utilizar un elemento urbano preexistente para aportar algo sencillo, da lugar a una nueva pieza que ser aprehendida por el uso de la fotograf'a.
Elemento agredido con un cuchillo para transformarse en pegatina a utilizar en tiendas de deporte o lugares donde se pr ctica deportes de pelota.

Interbentzioak Plaza Café-n

Violeta Nicolás

Intervenciones en Plaza Café



Proiektua eranskailuen zenbait ezaugarrietan oinarritzen da, eta ezer baino lehen, leku jakin bat adierazteko betetzen duen funtzioan. Ildo horretatik, zehaztapenaren eta eranskailua dagoen leku zehatza adierazteko gaitasunaren ideiekin egin du jolas; hori ez da normalean gertatzen, kasu honetan eranskailu bat "hemen" adierazten duen aulkian dago, eta adierazpen hori, bere aldetik, azpimarratuta dago edo zirriborro bat dauka gainean.

Gizonezko eta emakumeen komunak inbaditzen dituzte, beste generoari buruzko erreferentzien bidez, bai eta sexualitateari buruzkoen (espazio honetan galarazita dagoen bestearen sexuaren izena ahoskatuz). Tabako-makinan Bart Simpson-en irudiak pasotismoaren filosofiaren baitako esaldi bat diosku (arazorik gabe berea izan daitekeen horietakoa). Simpsonek adinarekin bat datozkion gauzei erreparatzeko bere begirada azalekoa erakusten du...

Eranskailuen ezaugarri publizitate eta aholku emaileari buruzko hausnarketa da; hartara, aholku paternalistak eginez: "mastekatu ezazu poliki", "jan itzazu produktu osasuntsuak", etab. Gainera, kaxa, armairu, ontzi... eta abarren edukia aipatzen dituzten eranskailuak hartu ditu aintzat: Horrenbestez, "I love café" testudun eranskailua jarri dut kafe-makinan, benetako bihotzaren irudia hartuta; horren bidez, kafea estimulagarria eta aldi berean hitzez hitzeko zentzuan bihotzari benetan eragiten dion elementua dela adierazi nahi dut.

Oro har, eranskailuen espazioa zehazteko eta pertsonalizatzeko gaitasunari buruzko lana da, baita tokian izango diren pertsonekiko interakzioaren gainekoa ere, herri iruditeria zabaldu, baieztatu eta kritikatuz.

El proyecto se centra en varios aspectos caracter'sticos de las pegatinas, en primer lugar en su funci n de indicar un lugar. En este sentido jug con la idea de concreci n y de se–alar justo el lugar sobre el que est la pegatina, cosa que no sucede normalmente, una pegatina que marca un lugar, es el caso de la pegatina sobre el asiento de aqu' y □ste a su vez tachado o subrayado con una x. Se invade el ba–o femenino y el masculino con referencias al g□nero opuesto y a la sexualidad, pronunciando el nombre, vedado en ese espacio, del sexo opuesto. En la m quina de tabaco, la imagen de Bart Simpson nos suelta una frase que bien podr'a ser de las suyas, propia de su filosof'a de pasotismo, y
su mirada superficial respecto a las cosas, propias por otro lado a su edad, etc. Reflexion sobre la caracter'stica publicitaria o consejera de la pegatina haciendo recomendaciones paternalistas del tipo: mastica despacio , o come sano , etc. As' mismo, se centr en la pegatina que hace referencia al contenido, de una caja, armario, recipiente, es por eso que he colocado la pegatina del I love caf□ , en la m quina del caf□, tomando el dibujo de un coraz n de verdad, en un juego en el que me refiero al caf□
como estimulante y como algo que afecta al coraz n literalmente. En general es un trabajo que se refiere al factor de concreci n del espacio y de personalizaci n que se consigue a trav□s de la pegatina, as' como el discurso de interacci n con los visitantes del lugar, de gui–o, ampliando, confirmando y criticando lo que vendr'a a ser el imaginario popular.





LarrySpace-ko seinaleztapena

Antonio Calzado

Señalética de LarrySpace

Proiektu honetako topaguneetako bat Iñaki Larrimbe sortzaileak "Finlandiar sauna edo arroila-jaitsiera?" izenpean Alde Zaharreko lonja batean kokatu duen karabana da. Espazio eta erabilpenerako erreferentziadun seinaleztapena sortzeko asmoz pentsatu zen.

Uno de los puntos de encuentro de este proyecto, la caravana que forma parte del proyecto del creador I–aki Larrimbe, titulada Sauna finlandesa o descenso a los barrancos y ubicada en una lonja del casco antiguo de la ciudad, fue repensada con objeto de crear una se–al□tica con referencias espaciales y de uso.





Interbentzio jakin batzuk Hiria Gunean

Juan Aizpitarte / Nerea Lekuona

Algunas intervenciones en Espacio Ciudad

1.“Periskopio”, Argazki-kazetaritzari buruz Gasteizen egiten den erakustaldiko sinboloaren aldaketa (Toño).

2. Garbiketa aretoko seinaleztapena (Nerea)

3. Armiarmaren habia: armiarma-sarea (Juan)

1

3

2

1. Modificaci n del s’mbolo del Festival de Fotoperiodismo de Vitoria Periscopio (To–o)

2. Se–al tica de cuarto de Limpieza (Nerea)

3. El nido de la ara–a: telara–a (Juan)

Juan Aizpitarte
INTERBENTZIOAK

Gasteiz Sarea - Red Vitoria

INTERVENCIONES DE Juan Aizpitarte

Galería Itinerante
SALVESE QUIEN PUEDA

Aldian aldiko egoera jakin batzuek esaldi topikoak sortzen dituzte eremu sozialean, esaterako galeriaren jabeak beak hautatu zuen hauxe. Egungo konpromisoaren parean jartzen du tipografia arranditsu eta inozoak.

Las situaciones coyunturales despiertan en lo social ciertas frases conocidas como esta que eligi el propio galerista. Una tipograf'a pomposa e inocente la pone a la altura del compromiso actual.

SALVESE QUIEN PUEDA..

Montehermoso AMOR LIBRE
Montehermoso AMODIO ASKEA

Ñabardurarik gabeko eslogan horren atzean 60ko hamarkadako berdintasun aldarrikapenak daude. Gaur egun indar poetiko berezia hartzen du, generoaren inguruko etiketen ekoizpen neurrigabean. Gerora, Camilo Sestoren LP ospetsu baten izenburua bihurtuko zen.

Imagen cortes a de Ediciones Musicales BMG Music Ariola

Ese slogan sin matices que un'a las reivindicaciones de igualdad al final de los sesenta cobra una fuerza po□tica singular en la actual sobreproducci n de etiquetas ligadas al g□nero. Mas tarde ser'a el t'tulo del famoso LP de Camilo Sesto.

Eusko Legebiltzarra
LAUDIRUS

Parlamento Vasco
LAUDIRUS

Euskadiren batasunaren zentzu tradizional ikonoklastaren, eta espazio publikoaren gestioaren (aparkaleku ordaindua) arteko ikur hau erabakiak hartzeko leku batean kokatzen da Bere bitasuna eta kontraesanak lurralde-politiken neutraltasuna eta moral bikoitza imitatzen dute.

Este signo, entre sentido tradicional iconoclasta de la uni n de Euskadi y la gesti n del espacio p blico a trav s del parking de pago, se emplaza en zona de toma de decisiones. Su dualidad y contradicci n imitan la postura neutra y de doble moral de las pol'ticas del territorio.

Krea bulegoak KRISIALDIARI ESKER BERRIRO SUSPERTUKO DA IRUDIMENA

Oficinas Krea CON LA CRISIS VOLVERÁ LA IMAGINACIÓN

Kultur enpresen baikortasun kutsagarriak menpean hartu behar du atzerakada ekonomikoaren mamua, beharretik sortzen den indarra lagun.

El positivismo contagioso de las empresas culturales, debe vencer al fantasma del retroceso econ mico, con la fuerza que nace de la necesidad.

Gora Taberna
PLEGU BEREZIAK

Gora Taberna
PLIEGOS SINGULARES

Pantailak ausaz gainjarriaz "Brote" ediziotik eratorritako plegu berezi hauetako molde grafikoak sorrarazten dituzte.

Esta serie de superposiciones a partir de impresiones al azar componen los encuentros gr ficos en la selecci n de pliegos nicos derivados del la edici n Brote .

Artiumeko Liburutegia
LIBURU INTERAKTIBOA, STICKERDUNA

Artium Biblioteca
LIBRO INTERACTIVO CON STICKERS

"Brote" edizioaren ale baten kontsultak liburutegiko erabiltzaileak ikurrak osatzera animatu ditu, jolas moldeetan.

La consulta de un ejemplar de la edici n Brote en forma de prueba anima a los usuarios de la biblioteca a explorar la composici n de signos en forma de juego.

Bar Plaza CAMIS/PLEGUA/ FRANKENTSTEINen KARTELA/ DENOK DENEN AURKA

Bar Plaza CAMIS/PLIEGO/CARTEL FRANKENTSTEIN/ DENOK DENEN AURKA

Erakusleihoan, zatikiez eta adabakiz osatutako gizakiaren mitoa, bertsio grafikoan, Bibliaren antzera irekitako liburu bat, eta haren barruan era guztietako ikus-kutsadurak. Gezurrezko kamerak, probokazio zuzenduak eta ikus—jolasak.

En el escaparate, el mito del hombre construido a petachos en versi n gr fica, un libro abierto como una Biblia y dentro todo tipo de contaminaciones visuales. Falsas c maras, provocaciones dirigidas y juegos visuales.

Zabalgana
MUGARIK GABEKO HIRIAN

Zabalgana
EN LA CIUDAD SIN LIMITES

El proceso de expansión acelerada va dejando marcas en los anillos del extrarradio de las ciudades: un paisaje descontextualizado de autocad y revestimiento de placas. En muchas ciudades, lugares similares comparten una relación entre bloques de vivienda, parques homologado, salidas de garaje y escultura decorativa. Como escenarios de teleseries de bajo presupuesto, rodados en interiores con algunos decorados visuales para localizar la acción de la vida.

El proceso de expansi n acelerada va dejando marcas en los anillos del extrarradio de las ciudades: un paisaje descontextualizado de autocad y revestimiento de placas. En muchas ciudades, lugares similares comparten una relaci n entre bloques de vivienda, parques homologado, salidas de garaje y escultura decorativa. Como escenarios de teleseries de bajo presupuesto, rodados en interiores con algunos decorados visuales para localizar la acci n de la vida.

Zuloa espazioa
EXPO OBJEKTUAK

Espacio Zuloa
OBJETOS EXPO

Eguneroko objektu ahaztuetan eranskailuak erabiltzeko aukera sorta bat. Ikur publikoen kustomizazioa eta dekonstrukzioa.

Una variedad de posibilidades de usos de los adhesivos en objetos dom□sticos detourn□es . Customizaci n y deconstrucci n de signos p blicos.

Galería Trayecto
AMARAUNA

Galería Trayecto
TELA DE ARAÑA

Gasteizko ortoirudiak egitura zentrokide eta erradiala erakusten du, Katedraletik hasi, eta alde zaharraren kanpoaldera. Amaraun hori ikusi daiteke, baita zabalgune modernoekiko egiturazko topaguneetan.

La ortofoto de Vitoria desvelaba una construcci n conc ntrica y radial desde la catedral hacia el exterior del Casco viejo. La tela era visible incluso en los encuentros estructurales con los ensanches mas modernos.

Área Catedral PHOTO SPOT
Área Catedral PHOTO SPOT

Turistaren objektibotik ateratzen diren ikusmirak markatzeko borondate ironiko batek bultzatuta, "leku ederren" adierazle honek iruditerian eragina duten hiriko zonaldeetan jartzen du arreta.

En una voluntad ir nica de marcar cada mirada del objetivo del turista, este indicador de lugar bello nos reitera las zonas de la ciudad que operan en el imaginario, representado mas all de sus limites.

BIOGRAFIAK

Juan Aizpitarte

Donostia, 1974. Bordeleko École Nationale Superieure de Beaux-Artsen graduatu zen 1998an. Urte berean lanean hasi zen Asociación Zebra 3rekin Buy-Self katalogoan, eta baita Mauritzio Cattelan-ek sortutako Permanet Food aldizkariarekin ere. Bere lanaren funtsezko oinarria bideoa eta instalazioak dira, arte-diziplina eta -estrategia desberdinen moldeetan agertu eta deseginduz: performance artistikoa, serigrafia, soinua, eskultura, bideoa, argazkia... Ekintzez eta errepresentazioz mugen gainetik harat-honat ibili zale, gizarte politiken eta masa-estetiken eremuetan ere aritua da Bere azken lanetan jolasa komunikabide bihurtzen da, eta publikoa bera bere lanaren osagarri. Hiri-espazioen gaineko ikerlea da; horrez gain, hiri espazioan eta hiri espazioen gaineko ekintzetan parte hartzen du, gizarte aktibismotik eta esku hartze mediatikotik mundu garaikidea berrinterpretatzeko bide. Bere lan bideografikoetan, itxurazko urruntze baten atean, kontu horiek lantzen ditu ikuspegi introspektiboago batetik, dena ironia sotil baten eraginpean.

Gaur egun Donostian bizi da, Euskal Herrian.
Bere azken proiektuen artean, hauek nabarmendu daitezke: Post, nazioarteko edizio lantegia, École des Beaux Arts de Bordeaux (2009). Brote erakusketa eta liburuaren edizioa, Donostiako Nocolor (2008), Bilboko Espacio L'mono (2008) eta Gijongo Espacio Líquido (2008) galerietan. Esku hartzeak espazio publikoetan, Zeinuak zeinu gainean jardunaldi-lantegian zehar, Gasteizko hainbat tokitan (2008). Erakusketak: Sobre puentes, calles ventanas y fantasmas. Arteko Galeria (2008), Artista Berrien Koldo Mitxelena Lehiaketa, Donostia (2007), OhhYeahhh. Arte eta teknologia berriei buruzko laborategia. Antiguo Instituto Kulturgunea, Gijon (2006), Kickflip, Buy-Sellf catalogue, Palais de Tokio, Paris (2004), TNT, Bordele, (2003), Gaur Hemen Orain. Bilboko Arte Ederren Museoa (2002). Snuff Bunny, La vie ç zit des reves, FRAC Collection Aquitaine, Bordele; CAPC (2000), DV Galeria (2001). FunBox. Aller-Retour. Triangle Galeria, Bordele (1997), Programa, Blockhaus DY10. Nantes (1997), Trans, Hi Ha Mes Equips. Metrónom Galeria, Bartzelona (1997). Artista hetorodoxoekin batera aritu izan da, esaterako: Mauritzio Cattelan, Txomin Badiola, Buy-Sellf, Xabier Erkizia, Action Futur, Manu Uranga, Nicolas Milhe, Florent Mazzoleni, Juan Pérez, Pierre Hourquet eta Four Taxiseko Michel Aphesberou. Gainera, parte hartu du musikaren eta arte garaikidearen esparruetako diziplinarteko zenbait proiektutan: Atracción Reacción, Musika berrien festibala, Arteleku Donostia (2002).
juanaizpitarte@yahoo.com

Javier Abarca

Madrid 1973. Madrilen bizi eta lan egiten du.
Irakasle eta kritikaria da. Arte Ederrak ikasi zuen Madrilgo Complutense Unibertsitatean eta tipografia Colchester School of Art and Design, Erresuma Batua.
Laurogeigarren hamarkada erditik egungo hamarkada arte graffitian eta hiri artean aritu izan da. Madrilgo trenen inguruan laurogeigarren hamarkadan egindako graffitiaren hastapeneko buru izan zen. Lehen espainiarra izan zen Europako hiriburu nagusienetan jarduten laurogeita hamargarren hamarkada hasieran. Bere lanak eragin handia izan zuen graffiti idazle nazionalen belaunaldietan.
Laurogeigarren hamarkadaren amaieran garatzen hasi zenetik hiri artearen inguruko eszena nazionalean ezkutuko aktore izan da. Figuran handien aholkulari izan da eta idazle lanetan aritu da. Fenomenoaren eboluzioko testigu zuzena izan da eta ordezkari garrantzitsuenekin harreman estua du. Hamarkada honen erditik gaurdaino hiri artearen teorizazio eta ikerketa lanetan ari da soilik.
Irakasgai monografiko bat zuzentzen du 2006az geroztik Madrilgo Unibertsitate Complutenseko Arte Ederreko Fakultaterako. Hitzaldiak ematen ditu eta artikuluak argitaratu hainbat forotan, bere blogean ere bai. Bera da hiri arteari buruzko gaztelerazko artikulu sakonak eskaintzen duen iturri bakarra. Aula Continua de Arte Urbano foroa zuzentzen du; espazio teoriko praktiko irekia da, Madril erdian kokatuta. Urbanismo Audiovisual zuzentzen du; hiri artearen inguruko hainbat ikuspuntu eskaintzen duen dokumentalen erakusketa ibiltaria. Madposter jaialdia zuzentzen du; Madrilen egiten den poster art arteari buruzko nazioarteko erakusketa monografikoa da.
Pifostio argazki-bilduma zabalaren egilea da; Madrilgo kaleko irudi grafiko partikularrari buruz egin zuen 1999 eta 2006 bitartean. Bilduma hori Photoespañan erakutsi dute, Madrilgo Centro Conde Duque aretoan eta Valentzian egindako Nazioarteko II. Tipografia Biltzarrean.

Florent Mazzoleni

Bordelen bizi da eta han egiten du lan. Idazlea, kazetaria eta argazkilaria da. Honako gaien inguruan idazten du nagusiki: herri-musikak, bidaiak, argazkilaritza, Afrika eta Estatu Batuetako hegoaldea. 90eko hamarkadan graffiti arloan aritu zen Frantzian. Hainbat aldizkarietan idazten du: L´Optimun, TGV Magazine, Afrique Magazine, Monde 2, Vibrations, VSD edo Ulyssen. L'odyssée du rock 1954-2004 (Hors Collection 2004, réédité en 2005 et 2007) idatzi du. 2005. urtean, James Brown, l'Amérique noire, la soul et le funk y Les White Stripes et la scène de Detroit

argitaratu zuen Hors Collection argitaletxean. 2006an Nirvana et le punk rock américain aurkeztu zuen Hors Collectionen eta Memphis, aux racines du rock et de la soul Castor Astral argitaletxean. 2007an Rock'n'Roll 39-59 parte hartu zuen, Cartier Fundazioak izen bereko erakusketako katalogoan alegia, eta urrian Disco plazaratu zuen Flammarionen. 2008ko apirilean L'épopée de la musique africaine :rythmes d'Afrique Atlantique argitaratu zuen Hors Collectionen eta azaroan Les racines du rock argitaletxe horretan ere. Salif Keitari buruzko biografia amaitu berri du eta Motown diskaetxeren urrezko garaiaren inguruko liburua idazten ari da; biak 2009aren amaieran argitaratuko dituzte.

Ángel López de Luzuriaga

Ekonomia Zientzietan lizentziaduna, eta aholkularia marketing eta Internet alorretan .
LUKE aldizkariaren sortzaile eta editorea da (www.espacioluke.com). Gasteiz.

Antonio Calzado

Barne-espazioen diseinatzailea, espezialista infoarkitekturan eta errepresentazioan. Hiri altzarien esparruan egin izan du lan, "Las 3.000 viviendas" poligonoko seinaleei eta hiri paisaiari buruzko proiektuan. Sevilla.

Blanca Rodríguez

Arkitekturako 5. ikasturteko ikaslea da ETSASS-DAGETen (Donostiako Arkitektura Goi Eskola Teknikoa). Horrez gain, eranskailuen diseinuak marrazten eta egiten du. Hiri ekintzaile den aldetik, arteiensayo.blogspot.com izeneko bloga sortu du. Gasteiz

José Antonio Antón

Informatikako eta alemaniar filologiako ikasketak ditu. Kulturaren esparruan argazkigintzan aritzen da; bere obraz gain, jarduera ugari antolatzen ditu eta hainbat kolektiborekin aritzen da. Gasteiz

Miguel Ángel Rojas

Arkitekto eta hirigilea da, paisaien alorrean dihardu lanean: hiri- eta kultura-paisaiak, azpiegiturak. Gainera, hiri garaikideak aldatzeko proiektuetan aritzen da. Tesina egiten ari da Gasteizko Eraztun Berdeari buruz, "hiri ekotono" gisa. Sevilla

Javi Aldarias

Arkitektura "materialari" buruzko ikasketak utzi, eta arkitekturaren alderdi inmaterialetan murgildu da; ordutik hona ingurune birtualak, informazioaren arkitektura, soinu espazioak, bideo-sormena eta hiri-instalazioen esparruan egiten du lan. Hainbat arkitekto-tailerretan egin du lan, eta instalazioak sortu honako erakundeetan: Sevillako Centro Andaluz de Arte Contemporáneo (CAAC), Lisboako Fundaçao Galouste Gulbenkian, eta Lille-ko Le Fresnoy, Studio National des arts contemporains. Jaen

Natalia Aragón

Antropologia sozialeko eta ikus-entzunezko arteetako lizentziaduna da Chispas-eko Zientzia eta Arteen Unibertsitatean. Erakusketa eta interbentzio ugaritan hartu izan du parte, argazkigintza, marrazketa eta grabatua uztartuz. Mexiko

Nerea Lekuona

Diseinatzaile grafikoa eta argazkilaria da. Hiri garaikidea antzematen, bereganatzen eta berrinterpretatzen du, bakarka edo beste sortzaile batzuekin batera. Gasteiz

Sebastián Bayo Oñoro

Arkitekto hirigile hau Kultur Ondarearen Kudeaketaren esparruan aritzen da. Harremanean dago aspalditik artearen munduarekin, batez ere arkitekturarekin eta hirigintzarekin zerikusia duten ildoekin. Gasteiz

Violeta Nicolás

Arte Ederretako ikaslea da Murtziako Unibertsitatean. Hiri-ekintzetako hainbat proiektutan hartu izan du parte, esaterako Fakultateak eta Milango Udalak antolatutako Out of control erakusketa kolektiboan Murtzia

Zuriñe Celaya Arroyabe

